

Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Azterlana, Euskadiko banku fundazioen arteko ekintza itunduaren kontzeptuari buruzkoa

2019ko martxoa



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. BANKU FUNDAZIOAK	5
2.1. Lege testuingurua	5
2.2. Gobernu organoak	5
2.3. Akordioak egitea	8
2.4. Kudeaketa eta kontrolerako tresnak	9
2.4.1. Gobernu korporatiboaren betebeharrak	10
2.4.2. Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa	10
2.4.3. Urteko plan finantzarioa	11
2.5. Ituna	12
2.6. Estatuko banku fundazioen gaur egungo mapa	13
3. KREDITU ERAKUNDEEN GOBERNU ORGANOAK	15
4. KUTXABANKEN BANKU FUNDAZIOAK	17
5. KUTXABANK	18
6. ITUNERA HURBILTZEA	19
6.1. Baterako akordioak	19
6.2. Taldeak	20
6.3. Babes Institutuzionalaren Sistemak	25
7. JARDUNBIDE ONENEN KATALOGOA	27
Definizioak	27
I. Titulua – Banku fundazioen gobernu organoak	28
II. Titulua – Erabakiak hartzea patronatuan	29
III. Titulua – Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten fundazioen arteko erlazioak	30
IV. Titulua – Kreditu erakundeko partaidetza	31
V. Titulua – Kreditu erakundeko inplikazioak	33
8. KATALOGOAREN APLIKAGARRITASUNA KUTXABANK-EN BANKU FUNDAZIOETAN	34
8.1. Praktika islatuak	34
8.2. Berariaz jaso gabeko praktikak	34
8.3. Txertatu beharreko praktiken proposamenak	35
9. ONDORIOA	38
I. ERANSKINA	39



1. SARRERA

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA), erakunde hori sortzeko legearen 3.5. artikulua (1/2012 Legea, otsailaren 2koa) aplikatuta, Euskadin jarduten duten erakunde, administrazio eta agente ekonomikoen aholku erakunde izateko funtzioa du eslelituta:

5.- Lehiaren Euskal Agintaritza organo aholku emailea izango da Euskal Autonomia Erkidegoan lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan. Zehazki, ondorengo erakundeek eskatu ahal izango diote aholkua lehiaren eremuan: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, batzar nagusiek, foru aldundiek, udalek, lanbide elkargoek, merkataritza ganberak, enpresarien elkarteek, sindikatuek, eta kontsumitzaile nahiz erabiltzaileen elkarteek.

Testuinguru honetan, LEAk, bere helburu estrategikoen artean du lehiaren araudia enpresa panoraman ezarrita dauden betetze sistemetara zabaltzea.

Bestalde, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak (BBK) ezarria du araua bete eta gobernu onerako programa bat. Hala, bere jarduera garatzen duen ingurune sozialak hobetzeko duen konpromisoari lotutako helburuetan konstante bat da programa hori. Gainera, Compliance-k BBKren jarduketa konpromisoa portaera bere jarduera guztietan eredu etiko batzuen arabera izan dadin bermatzen laguntzen du eta, horregatik, LEAekin kontsultatzen dute bere sistemaren egokitasuna baita osatzeko aukera ere, hala dagokionean, lehiaren ikuspuntu bat txertatuz.

15/2007 Legeak, uztailaren 3koak, lehiaren defentsari buruzkoak ("15/2007 Legea") 1.1. artikuluan jasotzen du kolusio jarrera gisa definitzen diren jarduketa batzuk egiteko debekua. Kreditu erakunde batean partaidetza duten banku fundazioen jarduketa itundua saihesteko, arauak definitzen dituen kolusio jarrera horiek saihestu behar dira. Zehazki:

1. artikulua. Kolusio jarrerak.

1. Debekatuta daude akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, edo praktika itunduak edo ezagueraz paraleloak, baldin eta beren xedea bada, sortzen badu edo sor badezake lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko efektua merkatu nazional osoan edo zati batean eta, bereziki, honetan oinarritzen direnak: a) Prezioak edo beste merkataritza edo zerbitzu baldintza batzuk zuzenean edo zeharka ezartzea. b) Ekoizpena, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea. c) Merkatua edo hornidura iturriak banatzea. d) Antzeko prestazioetarako baldintza desberdinak aplikatzea, merkataritza edo zerbitzu erlazioetan baldin eta lehiakide batzuk egoera abantailatsuan ezartzen badituzte beste batzuen aldean. d) Kontratuak prestazio osagarriak onartzearen mende ezartzea, baldin eta beren izaeragatik edo merkataritza erabileren arabera, ez badute erlaziorik kontratu horiekin.

BBKren jarduera sakonki aztertu ondoren, a priori ez dirudi egingarria denik aurreko praktikak gauzatzea, zeren:

- a. kreditu erakunde bakarra dago
- b. fundazioek ez dute parte hartzen beren artean lehiatzen diren edo Kutxabanken partaidetuak dituzten beste erakunde batzuetan

Halere, BBKren jarduerak Kutxabanken parte hartzen duten beste bi banku fundazioekin jarduketa itunduari buruzko arrisku bat jasotzen du, eta beharrezkoa da aztertzea eta jarduketa protokolo batzuk aurreikustea, saihesta eta, halakorik bada, lagun dezaten halakorik den detektatzen.



Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea gaur egungo banku fundazioan transformatu zenetik, BBK-k erakutsi du kezka berezia duela Espainiako Bankuak eta Europako Banku Zentralak araudian definitutako estandarrak errespetatzeko eta, bere helburuen artean dago saihestea banku fundazioek era itunduan jardutea.

Legeak kreditu erakunde berdin batean partaidetza duten fundazioen arteko jarduketa itundua definitzen du, kasu honetan bezala, baldin eta erakundeen artean estatutu akordioak edo itunak edo parasozialak badaude, izan berariazkoak edo tazituak, hitzezkoak edo idatzizkoak (kudeaketaren alderdi zehatz batzuetan boto kontrajarriak noizbehinka igortzeko aukera ematen badu ere), baldin eta bere zuzendaritzari buruzko izaera estrategikoko oinarritzko irizpide komunak onartu behar badira.

Bestalde, 26/2013 Legeak, abenduaren 27koak, Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzkoak ezartzen du kreditu erakunde baten kapitalean % 30eko partaidetza bat duten banku fundazioek Espainiako Bankuari bidali behar diotela, onar dezan, bere partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokolo bat eta urteko plan finantzario bat. Gainera, kreditu erakunde batean % 50 edo hortik gorako partaidetza duten, edo kontrolatzeko aukera ematen dien hortik beherako edozein duten, banku fundazioek aipatutako plan finantzarioa indartu beharko dute bertan sartuz inbertsioen dibertsifikaziorako eta arriskuak kudeatzeko plan bat, eta erreserba funts bat eratu beharko dute erakunde partaidetuaren berezko baliabideen balizko premiei aurre egiteko edo, azken horren alternatiba gisa, kreditu erakundearen desinbertsio plan bat eratu beharko dute, adierazitako mugetatik behera murrizteko.

Horrela, BBKren jarduketa eta gobernu korporatiboaren politika une oro bere estrategian eta erabakietan ituna saihestera eta independentzia mantentzera bideratu dira. Interes honen esparruan, BBKren helburua da konpromiso honen oinarrietan sakontzea itun azterketa baten bidez orokorrean eta, bereziki, sozietate eta banku sektorean, jardunbide onenak "Best practices" identifikatzeko helburuarekin eta, urrats bat gehiago emanez, bere "Compliance" betetze programa zabaltzea lehiaren eskubidearen ikuspegitik.

Azterlan honetan alderdi hauek aztertuko dira:

- 1) Banku fundazioen jarduketa arautzen duten arauak aztertzea.
- 2) Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa - Fundación Bancaria Bilbao Bizkaia Kutxa ("**BBK**"), Fundación Bancaria Kutxa - Kutxa Banku Fundazioa ("**Kutxa**") eta Gasteizko Aurrezki Kutxa, Fundación Bancaria ("**Vital**") eta Kutxabank S.A. kreditu erakundea ("**Kutxabank**") erakundeen jarduketa zehazki aztertzea. Baterako eran, hiru banku fundazioak "**Kutxabanken Banku Fundazio**" gisa aipatuko ditugu.
- 3) Jarduketa itundua sortzen duten sozietate egoera edo egiturak aztertzea.
- 4) Kutxabanken Banku Fundazioen artean jarduketa itundua saihesten duten praktika onenen katalogo bat diseinatzea. Praktika horiek banku fundazioen gobernu politika korporatiboen zati izango dira.



2. BANKU FUNDAZIOAK

2.1. Lege testuingurua

Aurrezki kutxak asko transformatu dira azken hamarkadan, orokorrean, Espainiako sistema finantzarioari eta, zehazki, aurrezki kutxen sektoreari gogor eragin zion krisi ekonomikoaren ondorioz. Horrela, kutxen araubide juridikoa zehazki eta osoki birplanteatu behar izan zen eta esparru arauemaile berri bat diseinatu zen beren balio klasikoak (izaera soziala eta lurralde errotzea) itzultzeko eta beren kudeaketa profesionalizatzeko.

Berregituratzeko prozesuaren emaitzarik garrantzitsuenak izan zen Espainia eta Europako Batzordearen arteko Akordio Memoraduma eta Laguntza Finantzarioaren Esparru Akordioa sinatzea 2012ko uztailaren 23 eta 24an, hurrenez hurren. Ondorioz, *26/2913 Legea, abenduaren 27koa, aurrezki kutxa eta banku fundazioena ("26/2013 Legea")* onartu zen. Horrela, kreditu erakunde horiek banku izaerako edo izaera arrunteko fundazio bihurtu ziren behin betiko.

Banku fundazio berriek bi helburu dituzte: (i) lehen aurrezki kutxek garatzen zuten Gizarte Ekintza gauzatzea eta (ii) akziodun gisa beren partaidetza kudeatzea banku erakunde partaidetuan.

Banku fundazioak 26/2013 Legearen 32. artikuluan definitu dira: *"banku fundaziotzat joko da kreditu erakunde batean, zuzenean edo zeharka, gutxienez erakundearen kapitalaren edo boto eskubidearen ehuneko 10eko partaidetza mantentzen duena, edo bere administrazio organotik kideren bat izendatu edo kargutik kentzeko partaidetza mantentzen duena"*.

Jarraian, aztertuko dira banku fundazioen gobernu erakundeak, banku fundazioko akordioak eta bete beharreko kudeaketa eta kontrol tresnak.

2.2. Gobernu organoak

26/2013 Legearen 37. artikulua ezartzen ditu banku fundazioen gobernu organoak: patronatua, estatutuak aurreikusten dituzten patronatuaren batzorde delegatuak, zuzendari nagusia eta gainerako organo delegatuak edo ahaldunduak, baldin eta fundazioen araudi orokorraren arabera estatutuek aurreikusten badute.

• Patronatua

Patronatua banku fundazioen gobernu eta ordezkaritza organo nagusia da. 26/2013 Legearen 38. artikulua arabera, fundatze helburuak betetzea eta fundazioen ondarea integratzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea dagokio. Halaber, betebeharrak betetzen direla kontrolatu, gainbegiratzeko eta horiei buruz Espainiako Bankua informatzeko ardura du.

Egiturari dagokionez, patronatuak estatutuek ezartzen dituen kide kopurua izango du. Kopuru hori proportzionaltasun printzipioaren arabera izango da bere aktiboen bolumenaren arabera. Kideen kopurua ez da 15etik gorakoa izango. Patronatuak gutxieneko egitura bat izango du, hauxe:

- **Presidente** bat, patronatuak bere kideen artean izendatua. Presidentea banku fundazioaren ordezkaritza maila altuena izango da. Estatutuetan araubide aplikagarri bat ezarri behar da (26/2013 Legearen 41. artikulua).



- **Idazkari** bat, patronatuak izendatuko duena eta akordioak ziurtatzea izango da bere ardura. Idazkaria patronatuko kidea izan daiteke ala ez (26/2013 Legearen 42. artikulua).
- **Zuzendari nagusi** bat, patronatuak izendatuko duena eta bileretan izango dena ahotsarekin, baina botorik gabe. **Zuzendari nagusiak ezin du izan patronatuko kidea** (26/2013 Legearen 42. artikulua).

26/2013 Legearen 39. artikulua araber, **patronatuko kideek** banku fundazioaren gizarte ekintzaren jarduketa arloko pertsona fisiko edo juridiko nabarmenak izan behar dute; hala, talde hauetako baten batekoak izan beharko dute:

- a) Pertsona edo erakunde fundatzaileak, baita, hala dagokionean, banku fundazioaren ondareari dagokion aurrezki kutxan tradizio luzeak ere.
- b) Fundazioaren jarduketa arloko interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten erakundeak edo bertan errotze aitortua dutenak.
- c) Pertsona pribatu, fisiko edo juridikoak, baldin eta baliabideak eman badizkie era esanguratsuan jatorriko banku fundazioari edo aurrezki kutxari.
- d) Fundazioaren helburu sozialak betetzearekin erlazionatuta dauden arloetan, edo sektore finantzarioaz bestelako sektoreetan, banku fundazioak inbertsio garrantzitsuak dituen sektoreetan, ospe profesional aitortua duten pertsona independenteak. Talde honetan integratzen diren patronoek ezingo dute karguan jardun segidako bi agintalditan baino gehiagoan eta, kasu guztietan, hamabi urtetik gorako epean.
- e) Arlo finantzarioan ezagutza eta esperientzia espezifikokoak dituzten pertsonak, Patronatuak integratu beharko dituenak 26/2013 Legea garatzeko legegintzak aurreikusten duen ehunekoarekin, zeinen presentzia ordezkagarria eta gorakorra izango den dagokion kreditu erakundeko partaidetza mailaren arabera.

a), b) eta e) taldeek gutxienez ordezkari bat izan beharko dute patronatuan. c) taldeari dagokionez, patronatuan gutxienez kide bat izan beharko dute, baldin eta patronatua eratu aurreko hamabost urteetan fundazioaren berezko baliabideen % 5etik gorakoa den ekarpen bat identifika badaiteke.

Nolanahi ere, administrazio publikoen eta zuzenbide publikoko erakunde eta korporazioen patrono ordezkarien kopuruak ezingo du izan guztizkoaren % 25etik gorakoa.

Patrono izatea bateraezina da erakunde finantzarioko pareko karguetan jardutearekin, baldin eta banku finantzarioa erakunde finantzarioaren akzioduna bada, edo banku taldeak kontrolatutako beste erakunde batzuetan jardutearekin.

Gainera, patronoek bete egin behar dituzte 26/2013 Legearen 40. artikuluan ezarritako **betekizunak**:

- Zintzotasun komertziala eta profesionala, 26/2013 Legea garatzeko arauak zehazten duten baldintzetan.
- Bere funtzioak gauzatzeko ezagutza eta esperientzia espezifikokoak izatea.
- e) taldekoak diren patronoek zintzotasun, esperientzia eta gobernu onaren betekizunak izan beharko dituzte.

Patronoak **izendatzeko prozesua** banku fundazioaren estatutuetan ezartzen da.



Ordainsariari dagokionez, patronoek doan jardungo dute, alde batera utzi gabe karguan jarduten dutenean sortzen zaizkien gastuak, behar bezala justifikatuta, ordaintzeko eskubidea.

Atribuzioei dagokienez, patronatuaren funtzionamendua eta eskumenak gauzatzeko modua banku fundazioaren estatutuetan daude araututa, zehazki, akordioak erabaki eta hartzeari, intereseko alderdiei buruzko botazioari, bilerak egiteari eta horien deialdiari dagokionez. Halere, fundazioei buruzko araudiaren arabera, patronatuaren atribuzioak hauek dira:

- Onartzea urteko kontuak eta jarduketa plana.
- Betetzea fundatze helburuak.
- Ardurarekin administratzea fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak.
- Izendatzea idazkaria eta zuzendari nagusia.
- Lantzea eta Espainiako Bankuari bidaltzea partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa.
- Ematea eta baliogabetzea ahalorde orokorrak eta bereziak.
- Kudeatzea eta zaintzea ondarea eta aurrekontua zuzen administratzen dela.
- Onartzea estatutuen aldaketa aurrez egokitasuna baloratuta, adostea fundazioa fusionatu eta/edo desagertu dadila eta likidazio prozesua irekitzea, hala dagokionean.

• Batzorde delegatuak

26/2013 Legeak ezartzen du banku fundazioek batzorde delegatuak sortu ahal izateko aukera, baldin eta gobernu organoen funtzioetan jarduteari ekarpena egiten badiote, batez ere fundazioaren dimentsio ekonomikoa handia bada. Batzordeak sortzeko patronatuari ez dio kentzen ardura eta funtziorik, baizik eta fundazioaren funtzionamenduaren efikazia eta arintasunari ekarpena egiteko sortzen dira. Ohikoa da banku fundazioek batzorde hauek sortzea:

- **Auditoriaren batzorde delegatua:** kontuak zuzen lantzen direla bermatzen duen batzordea da, fundazioaren irudi fidela isla dezaten eta dagoen araudia bete dezaten. d) taldeko edo b) taldeko patrono independenteek eratu beharko dute. Kideek banku fundazioaren arduradun exekutiboekiko eta interes taldeekiko independenteak izan beharko dute.
- **Izendapenen eta ordainsarien batzorde delegatua:** patronoak eta gainerako gobernu organoak izendatzeko irizpide objektiboak ezartzeaz eta kargugabetzeko justifikazio txostena lantzeaz arduratzen den batzordea da.
- **Inbertsioen batzordea:** Banku Fundazioak gauzatzen duen inbertsio eta desinbertsio estrategiko eta egonkorrei buruz Patronatuari informatzeaz arduratzen den batzordea da, izan zuzenean edo talde berdineko erakundeen bidez. Halaber, aipatutako inbertsioen bideragarritasun finantzarioari eta horiek Fundazioaren aurrekontu eta plan estrategikoekiko duten egokitasunari buruz ere informatzen ditu. Gainera, fundazioak parte hartzen duen inbertsio proposamenak eta erakunde finantzario partaidetuak egiten dituen inbertsioak aztertzen ditu, kontuan izanda fundazioaren arrisku gosea eta bere inbertsio helburuak.
- **Gizarte Ekintzaren batzordea:** Funtzio betearazlerik gabeko organoa, bere jarduketa arloan informatu, aholkatu eta proposatzeko ahalmenak dituena.



Gizarte Ekintzaren Batzordearen eskumenak hauek dira: Patronatua aholkatzea alderdi sozialean, Gizarte Ekintzaren jarraibide ildoei buruzko proposamenak lantzea eta Patronatuari aurkeztea, Gizarte Ekintzaren aurrekontuak aztertzea eta Patronatuari jakinaraztea horiek betetzen diren eta indarrean dagoen araudiak edo Patronatuak esleitzen dionarekin erlazionatutakoak, baita aipatutako Gobernu Organoak egokitzat jotzen duen edozein txosten egitea ere.

Batzorde delegatuen edozein proposamen patronatuari igorri behar zaio, onar dezan, beste batzorde batzuen mendekoak izan ezik.

• Babesletza

Gobernu organoek gain, banku fundazioak kontrol araubidearen mende daude. Horrela, babesletza administrazioaren kontrol organoa da eta bere ardura da banku fundazioen eraketa eta funtzionamenduaren legaltasuna zaintzea, alde batera utzi gabe Espainiako Bankuari dagozkion funtzioak (26/2013 Legearen 45. artikulua).

Babesletzak babestu eta aholkatu egin beharko du banku fundazioari aplikatu dakizkiokeen zuzkidura, estatutu, izapide administratibo, araubide juridiko ekonomiko-finantzario eta kontableari buruz erabakiak hartzean, bideragarritasun ikerlanak egingo ditu, eta fundazioaren jarduerak argitara eman eta zabaldu egingo ditu.

2.3. Akordioak egitea

Zehazki, EAEko banku fundazioetan, akordioak egitean, kontuan izan beharko da Euskal Autonomia Erkidegoak EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen akordioak egiteko 23. artikuluan ezarritakoa. ("**9/2016 Legea**"):

- Patronatua baliozko eran eratuko da eta akordioak egin beharko ditu estatutuek eta indarrean dagoen araudiak ezartzen dituzten arau eta gehiengoen arabera.
- Eratzeko behar den quoruma ezingo da inoiz izan hiru patronotik beherakoa, araudian jasotako salbuespenekin.
- Fundazioaren estatutuek ezar dezakete organoek bilerak bideokonferentzia bidez edo bestelako komunikazio bideen bidez egin ditzaketela, betiere bermatzen bada bileran daudenen identifikazioa, komunikazioaren jarraitutasuna, deliberamenduetan esku hartzeko aukera eta botoa ematea.
- Salbuespenez, patronatuak erabakiak har ditzake bilerarik egin gabe, betiere informazio eta botorako eskubideak bermatzen badira, botoa hartu dela jasotzen bada eta autentikotasuna bermatzen bada. Ulertzen da erabakia pertsona juridikoaren helbidean hartzen dela eta baliozko eran emandako azken botoa hartzen den datan.

Bestalde, banku fundazioek erakunde partaidetuaren administrazio kontseiluan beren interesak ordezkatzen dituzten kontseilariak aukeratu dituzte. Ordezkariek irizpide hauek kontuan izanda aukeratzeko dira:

- partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloak arautuko ditu banku fundazioaren eta kreditu erakunde partaidetuaren gobernu organoen arteko erlazioak, besteak beste, kontuan hartuz kontseilariak hautatzeko irizpideak.¹

¹ 43.1. artikulua. Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa.

- kontseilariak zintzotasun, profesionaltasuna, esperientzia eta gobernu onaren printzipioak errespetatu beharko dituzte banku erakundeei eska dakizkiokeen eran². Beraz, bete egin behar dituzte 10/2014 Legean, ekainaren 26koan, kreditu erakundeen antolamendua, ikuskapena eta kaudimenari buruzkoan eta aplika daitekeen gainerako legedian ezarritako betekizunak.
- Patrono izatea bateraezina da banku erakundeko pareko karguetan jardutearekin, baldin eta banku finantzarioa erakunde finantzarioaren akzioduna bada, edo banku taldeak kontrolatutako beste erakunde batzuetan jardutearekin.³
- estatutuek patronoei aplika dakizkiokeen beste betekizun eta bateraezintasun batzuk zehaztu ahal izango dituzte, baita balizko interes gatazkak arautzen dituzten arauak ere.⁴

2.4. Kudeaketa eta kontrolerako tresnak

26/2013 Legeak banku fundazioa kudeatu eta kontrolatzeko bete behar diren hainbat tresna ezartzen ditu, eta fundazio horrek, era berean, erakunde partaidetuaren kudeaketan eragingo du. Betebehar horiek areagotu egiten dira, banku erakundeko partaidetza finantzarioaren ehunekoa igotzen den heinean.

Horrela, oro har, banku fundazio guztiei aplikatzen zaie gobernu korporatiboari buruzko araudia, baina soilik kreditu erakunde batean edo hura kontrolatzen duen batean % 30 edo hortik gorako partaidetza duten fundazioek dute **kudeaketa protokolo** bat lantzeko betebeharra. Bertan, bi erakundeen arteko erlazioak definitzen dituzten funtseko elementuak adieraziko dituzte, baita **plan finantzarioa** ere. Plan horretan definituko da banku fundazioak nola egingo dien aurre finantzazio premiei, baldin eta kreditu erakunde batek beharko balu zailtasun egoera batean.

Azkenik, kreditu erakunde bat kontrolatzeko posizioak dituzten edo % 50etik gorako partaidetza duten banku fundazioek (i) beren plan finantzarioan beren **inbertsioak dibertsifikatzeko eta arriskuak kudeatzeko plan bat** izan beharko dute arriskuak murrizteko eta (ii) edo, bestela, **erreserba funts** bat eratu beharko dute kreditu erakunde partaidetuaren finantzazioa bermatzeko zailtasun egoeretan edo **desinbertsio programa** bat eratu beharko dute. Bertan, fundazioak kreditu erakunde bere partaidetza % 50etik behera murrizteko ezarriko dituen neurriak adieraziko dira.

Jarraian, banku fundazioek bete beharreko tresnak laburbiltzen dituen taula dago:

Tresnak	Subjektu obligaziodunak
Gobernu korporatiboaren urteko txostena	Banku funtzio guztiak.
Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa	Banku partaidetuan kapitalaren % 30 edo hortik gorako edo bankua kontrolatzeko moduko partaidetza duten banku fundazioak.
Plan finantzarioa	
Inbertsioen eta arrisku kudeaketaren dibertsifikazio plana	Banku partaidetuan kapitalaren % 50 edo hortik gorako edo bankua kontrolatzeko moduko partaidetza duten banku fundazioak.
1. aukera: Erreserba funtsa	
2. aukera: Desinbertsio programa	

² 43.1. artikulua. Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa eta 3.2. artikulua, 26/2013 Legearen Gobernu Organoak.

³ 26/2013 Legearen 40. artikulua, patronoen betekizunei buruzkoa. Bertan, patronoen betekizunak ezartzen dira.

⁴ 26/2013 Legearen 40. artikulua, patronoen betekizunei buruzkoa. Bertan, patronoen betekizunak ezartzen dira.



2.4.1. Gobernu korporatiboaren betebeharrak

Bere betebeharrei dagokienez, 26/2013 Legearen 48. artikulua ezartzen die banku fundazio guztiei **urtean behin gobernu korporatiboaren txosten bat egiteko betebeharra ("GKUT")**, eta txosten horretako gutxieneko edukia hau izango da:

- Gobernu organoak: egitura, osaera, funtzionamendua eta izendapenen politika.
- Inbertsio politika banku erakundeetan: txostenak hartzen duen aldiaren partaidetza akziodunari dagozkion eskubideak baliatzeko deskribapena. Informazio hori fundazioaren eta kreditu erakundearen webgunean jakinarazi eta argitaratu beharko da gertaera garrantzitsu gisa.
- Beste inbertsio batzuk: jarraitutako jarduketak eta politikak.
- Ordainsarien politika: mekanismoak saihesteko ordainsarien politikaren bidez gehiegizko arriskuak hartzea eta patronatuak, indibidualki edo era kolektiboan, eta zuzendaritza nagusiak, halakorik bada, ordainsariak onartzea. Soilik jaso ahal izango dira patrono karguaz bestelako jardueretan aritzeagatik eskuratzen diren ordainsariak.
- Eragiketa lotuak: banku erakundearekin eta bestelako erakunde lotuekin gauzatutako eragiketen azalpena.
- Interes gatazken politikak.
- Garatutako gizarte ekintzaren jarduerak.

2.4.2. Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa

26/2013 Legearen 43. artikulua banku fundazioei ezartzen die **partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokolo bat lantzeko betebeharra**, fundazioek kreditu erakunde baten kapitalaren % 30 edo hortik gorako edo erakundea kontrolatzeko moduko partaidetza dutenean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko betekizunetako edozein aplikatzeagatik. Dokumentu honek bankuaren eta fundazioaren arteko erlazioa definitzen du. Gutxieneko edukia hau izango da:

- Kreditu erakunde partaidetuan banku fundazioak duen partaidetzaren kudeaketa arautzen duten oinarrizko irizpide estrategikoak.
- Banku fundazioaren patronatuaren eta kreditu erakunde partaidetuaren gobernu organoen arteko erlazioak, besteak beste, aipatuz kontseilariak hautatzeko irizpideak. Horiek errespetatu egin beharko dituzte 26/2003 Legearen 3.2 artikuluan aurreikusitako zintzotasun eta profesionaltasun printzipioak.
- Banku fundazioaren eta erakunde partaidetuaren artean eragiketak egiteko irizpide orokorrak eta balizko interes gatazkek saihesteko aurreikusitako mekanismoak.

*Aurrezki kutxa eta banku fundazioentzako Espainiako Bankuaren azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularraren hirugarren arauan, baloreen merkatu ofizialetan negoziatzeko onartutako baloreak jaulkitzen ez dituzten aurrezki kutxen ordainsarien eta gobernu korporatiboaren txostenen alderdi jakin batzuei buruzkoan eta kreditu erakundeetako beren partaidetzetatik eratorritako banku fundazioen betebeharrei buruzkoan ("EBZ 6/2015") zehazkiago ezartzen da **kudeaketa protokoloak** bere ataletan izan behar duen edukia.*



Fundazioaren eta kreditu erakundearen webgunean argitaratu behar den **kudeaketa protokoloa** banku fundazioaren patronatuak egingo du eta Espainiako Bankura bidali behar da, hark onar dezan, eta hark baloratuko du banku fundazioak erakunde finantzarioaren kudeaketa sano eta zuhurrean duen eragina. Kudeaketa protokoloa urtean behin berrikusi behar du Espainiako Bankuak.

2.4.3. Urteko plan finantzarioa

26/2013 Legearen 44. artikulua ezartzen du **urteko Plan Finantzario bat egiteko betebeharra**. Bertan zehaztuko da fundazioak zer eratarik egingo dion aurre erakunde partaidetuak izan dezakeen kapital beharri eta erakunde finantzarioetako bere inbertsio estrategiaren oinarriko irizpideak fundazioek kreditu erakunde baten % 30 edo hortik gorako partaidetza, edo erakunde kontrolatzeko moduko partaidetza bat dutenean Merkataritza Kodearen 42. artikuluko betekizunetako edozein aplikatzeagatik. Horretarako, banku fundazioek kreditu erakunde partaidetuetatik jasoko dute behar den informazioa.

EBZ 6/2015ko seigarren arauaren arabera, plan finantzarioak gutxienez eduki hau izan behar du:

- Egoera desberdinetan kreditu erakunde partaidetuaren baliabide premiei buruzko zenbatespenak, zehaztuz bere zenbatespenak hala dauden baliabideekiko baliabide propio gehigarri buruz nola izan beharko luketen eraketari buruz.
- Fundazioak zer eratarik egingo liokeen aurre kreditu erakundeak jasotako egoera desberdinetarako beharko lituzkeen baliabide zenbatetsiei, horiek gauzatuko diren kasuan.
- Fundazioak era libre eta berehalakoan eskura ditzakeen ondare baliabideak banku erakundearen beharri aurre egiteko.
- Fundazioak kreditu erakundearen duen inbertsio estrategia arautzen duten printzipio orokorrak: inbertsio epea, arriskua eta dibertsifikazioa.
- Fundazioak sortu nahi duen zorro motari buruzko informazioa eta zorroaren helburua, inbertsiorako balizko mugak eta aurreikusitako behin-behineko horizontea.

Plan finantzario hori Espainiako Bankuak onartu behar du.

Halaber, banku fundazioak kreditu erakunde baten % 50 edo hortik gorako partaidetza bat duen kasuan, plan finantzarioak hau izan behar du:

- **Inbertsioak dibertsifikatu eta arriskuak kudeatzeko plan bat**. Bertan adieraziko dira kontralderdi batek jaulkitako aktiboetan inbertitzeko konpromisoak, likidezia eta kaudimen handia dutenekiko desberdinak izango direnak, eta ez dituzte gaindituko EBZ 6/2015n ezarritako mugak:
 - Kontralderdi berdinak (kreditu erakunde partaidetuaz bestelakoa) jaulkitako aktiboetan inbertitzean ez da gaindituko fundazioaren ondare garbi osoaren % 10a.
 - Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako definizioen arabera, jarduera sektore berdineko (banku sektoreaz bestelakoa) sozietateek jaulkitako aktiboetan inbertitzean ez da gaindituko fundazioaren ondare garbi osoaren % 40a.
- **Erreserba funts bat ezartzea** aurre egiteko kreditu erakunde partaidetuaren balizko baliabide beharri baldin eta ezin badira estali beste baliabide batzuekin eta, Espainiako Bankuaren ustez, arriskuan jar badezakete kaudimenaren arloko beren betebeharren betetzea. 877/2015 Errege



Dekretuak, urriaren 2koak, 26/2013 Legea, Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzkoa garatzen duenak ("**877/2015 ED**") erreserba funtsaren bolumena kalkulatzeko eta fundazioak bere Plan Finantzarioan gutxieneko bolumen minimo hori lortu ahal izateko gutxieneko zuzkiduren egutegi bat izan behar du.

2.5. Ituna

EBA 6/2015k jarraibide zehatzak ezartzen ditu **itunean**. Horrela, hamaseigarren arauak hau ezartzen du:

*"Kreditu erakunde berdin batean partaidetza duten fundazioen arteko **jarduketa itundutzat** joko da, erakundeen artean estatutu akordioak edo itunak edo parasozialak izatea, izan berariazkoak edo tazituak, hitzezkoak edo idatzizkoak (erakunde partaidetuaren kudeaketaren alderdi zehatz batzuetan boto kontrajarriak noizbehinka igortzeko aukera ematen badu ere), baldin eta bere zuzendaritzari buruzko izaera estrategikoko oinarrizko irizpide komunak onartu behar badira."*

EBZ 6/2015k betebeharrak ezartzen ditu eran itunduan jarduten duten banku fundazioentzat:

- Kudeaketa protokolo bakarra eta plan finantzario bakarra egitea.
- Erreserba funtsa era globalean kalkulatzeko fundazio guztientzat fundazio bakarra izango balitz bezala eta fundazio bakoitzak estali behar dituen zenbatekoak banatzea kreditu erakundearen partaidetzaren arabera.

Beraz, jarduketa itundu bat dagoenean, betebeharrak egin beharko dira:

Tresnak	Subjektu obligaziodunak
Gobernu korporatiboaren urteko txostena	Banku fundazio bakoitzak bere GKUT egingo du, nahiz eta era itunduan jardun.
Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa	Baterako eran egingo da.
Plan finantzarioa	
Erreserba funtsa	Era globalean kalkulatu da fundazio guztientzat.

Arauaren arabera, hainbat banku fundaziok era itunduan **jarduten dute** izaera estrategikoko oinarrizko irizpide komunak ezartzen dituztenean erakunde partaidetuaren kudeaketan. EBZ 6/2015ren kudeaketa protokoloari buruzko hirugarren arauak ezartzen du kudeaketa protokoloak, besteak beste, izango dituela, "*banku fundazioak kreditu erakunde partaidetuan duen partaidetza kudeatzeko izaera estrategikoko oinarrizko irizpideak*" zehazki zehaztuz, aurrekoarekin erlazionatuta, honi buruzko informazioa izan beharko duela:

- "i) Kreditu erakundeko partaidetzaren helburua eta aipatutako partaidetzak beste inbertsio alternatiba batzuen aurrean eskaintzen dituen sinergiak edo abantailak, fundazioaren gizarte ekintzari dagokionez.*
- ii) Aplikatuko den politika erakunde partaidetuaren emaitzak banatzeari dagokionez (dibidenduen banaketa, baliabide propioen igoera, etab.).*



iii) Balizko akordioak beste akziodun batzuekin. Halakorik bada, izenpetutako itun parasozialak zehaztuko dira, zehazki, boto eskubidea muga dezaketena. Halaber, estatutu izaera duten horrelako mugak zehaztuko dira.

iv) Zenbait banku fundaziok kreditu erakunde berdinean partaidetza bat dutenean eta ezin bada aplikatu zirkular honetako hamaseigarren araua, kudeaketa protokoloak berariaz aipatu beharko du ez dagoela jarduketa itundurik beren artean. Zehazki, aurrezki kutxen transformaziotik datozen fundazioen kasuan, baldin eta aurrezki kutxa horiek iraganean akordio bat sinatu bazuten beren jarduera finantzarioa baterako eran egiteko kreditu erakunde partaidetuaren bidez edo erakunde horrek xurgatu ondoren sortutako beste baten bidez, banku fundazioek dagozkien kudeaketa protokoloetan berariaz aipatu beharko dute akordio hori ez dagoela indarrean“.

Beraz, kreditu erakunde berdinean partaidetza duten fundazio desberdinen arteko irizpideei buruz adostasuna eta akordioa dagoenean, jarduketa itundu bat dagoela uste izaten da.

2.6. Estatuko banku fundazioen gaur egungo mapa

26/2013 Legeak aurrezki kutxak banku fundazio edo banku arrunt bihurtzeko prozesua amaitzeko behin betiko epe gisa ezarri zuen 2014ko abenduaren 31. Transformazio prozesu hori dela eta 13 banku fundazio agertu ziren. Zehazki, banku fundazio hauek daude⁵:

- 1) La Caixa Banku Fundazioa fundazio gisa eratu zen 2014ko ekainaren 16an. Banku fundazioak, 2014ko urrian, gizarte ekintzaren mendekoak ez diren bere aktibo eta pasiboak bereizi zituen Criteria Caixa, SAUren alde (erabat partaidetua La Caixa banku fundazioak). Beraz, La Caixa banku fundazioak bere partaidetza CaixaBank-en zeharka kudeatzen du Criteria Caixaren kapitalaren % 100ean duen partaidetzaren bidez. Banku fundazioaren partaidetza **Caixabanken** % 40koa da.
- 2) Caja Canarias Banku Fundazioak **CaixaBank** gizarte kapitalaren % 0,6393 du.
- 3) Caja Navarra Banku Fundazioak **CaixaBank** gizarte kapitalaren % 0,94 du.
- 4) Caja de Burgos Banku Fundazioak **CaixaBank** gizarte kapitalaren % 0,591 du.
- 5) Ibercaja Banku Fundazioak, 2014ko ekainaren 17an eratuak, **Ibercaja Banco, SAn** % 87,8ko partaidetza du.
- 6) Caja Círculo Banku Fundazioa: **Ibercaja Banco, SAren** gizarte kapitalaren % 3,45 du.
- 7) Unicaja Banku Fundazioak, 2014ko azaroaren 24an eratuak, **Unicaja Bankuaren** akzioen % 49,7 du. Helburua da Unicaja Banco-ko partaidetza % 40tik behera jaitea.
- 8) Caja de Ahorros de Asturias Banku Fundazioa, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Extremadura Banku Fundazioa eta Caja de Ahorros de Santander y Cantabria Banku Fundazioa: era itunduan jarduten dute **Liberbank**-en % 16,14, % 4,80 eta % 3,36ko partaidetzarekin, hurrenez hurren. Banku fundazio hauek beren patronatuen bidez onartu zuten Sindikatze Ituna izeneko akordio bat sinatzea. Itun hori dela eta, kreditu erakunde partaidetuan era itunduan jarduten jarraitu du. Sindikatze Ituna 2015eko otsailaren 23an sinatu zen. Aurrez, jarduketa itundua 2011ko apirilaren 13ko aurrezki kutxek sinatutako Integrazio Kontratuaren mendekoa zen eta BIS desagertzeagatik iraun zuen hainbat gehigarri eta aldaketekin. Horregatik, uste da **hiru banku fundazioek era itunduan jarduten dutela** eta % 24,3ko partaidetza bakarra dutela Liberbank-en.

⁵ Iturria: <http://www.ceca.es/a-quien-representamos/entidades-de-credito/#cajasdeahorrosdeejericioindirectoyfundacion>.



9) BBK Banku Fundazioak % 57ko partaidetza du Kutxabanken.

10) Kutxa Banku Fundazioak % 32ko partaidetza du Kutxabanken.

11) Vital Banku Fundazioak % 11ko partaidetza du Kutxabanken.

Banku fundazioa	Ehunekoa	Banku erakundea
La Caixa	% 40,0000	
Caja Canarias	% 0,6393	Caixabank
Caja Navarra	% 0,9400	
Caja de Burgos	% 0,5910	
Ibercaja	% 87,8000	Ibercaja Banco, S.A.
Caja Círculo	% 3,4500	
Unicaja	% 49,7000	Unicaja Banco
Caja de Ahorros de Asturias	% 16,1400	
Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Extremadura	% 4,8000	Liberbank
Caja de Ahorro de Santander y Cantabria	% 3,3600	
BBK	% 57,0000	
Kutxa	% 32,0000	Kutxabank
Vital	% 11,0000	



3. KREDITU ERAKUNDEEN GOBERNU ORGANOAK

Beren definizioari erreparatuta, banku fundazioek partaidetzak dituzte kreditu erakundeetan; beraz, gobernu organoen zati dira. Atal honetan beren ezaugarri garrantzitsuenak aipatzen dira.

Kreditu erakundeen gizarte organoak administrazio kontseilua eta akziodunen batzar nagusia dira.

1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan, uztailaren 2koan, Kapital Sozietateen Legearen ("**KSL**") testu bategina onartzen duenean ezarritakoaren arabera, **akziodunen batzar nagusiak** gehiengoz erabakitzen du bere eskumeneko gaiei buruz. Esku artean dugun kasurako ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira:

- Batzar nagusiaren eskumena da administratzaileen izendapen eta bereizketari buruz eztabaidatu eta erabakitzea⁶.
- Estatutuetan kontrakorik ez badago ezarrita, kapital sozietateen batzar nagusiak administrazio organoari jarraibideak eman ahal izango dizkio edo berak baimendu beharko du kudeaketako zenbait gairi buruz organo horrek erabakiak hartzea edo akordioak egitea.⁷

Administrazio organoa **beharrezkoa**, **iraunkorra** eta **autonomoa** da, zeren independentzia gorde behar du batzar nagusiaren erabakiekiko. Kide anitzeko organo bat da eta pertsonen gehiengoaren printzipioaren mende jarduten du ez kapital gehiengoaren mende.

Administratzaileen eskumena da sozietatearen kudeaketa eta ordezkaritza KSLen ezarritako baldintzetan⁸. Hau aipatu behar da:

1) **Administrazio kontseiluaren deialdiari** dagokionez⁹:

- Administrazio kontseilua dagokion presidenteari edo bere ordezkariari deitu behar du.
- Kontseiluko kideen gutxienez heren bat erabakitzeko administratzaileek deitu ahal izango dute, gai zerrenda adieraziz, egoitza soziala dagoen herrian egiteko, presidenteari aurrez eskatuta, honek ez badu arrazoi justifikaturik gabe deialdia egiten epe bateko epean.

2) **Administrazio kontseilua eratzeari** dagokionez¹⁰.

- Erantzukizun mugatuko sozietatean administrazio kontseilua baliozko eran eratuko da estatutuetan aurreikusitako kontseilari kopurua badago, presente edo ordezkatuta, betiere, gutxienez, kideen gehiengora iristen badira.
- Sozietate anonimoan, administrazio kontseilua baliozko eran eratuko da bileran badago kideen gehiengoa, presente edo ordezkatuta.

3) **Administrazio kontseiluak** sozietate anonimoan **egin ditzakeen akordioei** dagokienez¹¹.

- Sozietate anonimoan administrazio kontseiluaren akordioak bileran dauden kontseilarien gehiengo oso bidez egingo dira.

⁶ KSLren 160. artikulua.

⁷ KSLren 161. artikulua.

⁸ KSLren 209. artikulua.

⁹ KSLren 246. artikulua.

¹⁰ KSLren 247. artikulua.

¹¹ KSLren 248. artikulua.



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

- Sozietate anonimoan idatzizko eta bilerarik gabeko botazioa soilik onartuko da ez badago kontseilaririk prozedura honen aurka.

Administrazio kontseiluaren kideek, araudiaren arabera, 10/2014 Legearen, ekainaren 26koaren kreditu erakundeen antolamendu, egiaztatze eta kaudimenaren V. Kapituluko zintzotasun profesionaltasun esperientzia eta gobernu onaren ("AEKL") printzipioak errespetatu behar dituzte.

Adierazi behar da erakunde partaidetuaren administrazio kontseiluetan banku fundazioak ordezkatzten dituzten kontseilariek printzipio berdinak errespetatu behar dituztela¹².

¹² 43.1. artikulua. Partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokoloa eta 3.2. artikulua, 26/2013 Legearen Gobernu Organoak.



4. KUTXABANKEN BANKU FUNDAZIOAK

2011ko irailean eta urrian, Bilbao Vizcaya Kutxa, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián, Caja de Ahorros de Vitoria y Álava aurrezki kutxen Batzar Nagusiak eta Kutxabank, Saren (Kutxabank) Akziodunen Batzar Nagusiak hau onartu zuten:

- Integrazio kontratua, kontratu oinarriko (Babes Instituzionalerako Sistema edo "BIS") erakundeen talde konsolidagarri bat eratzekoa. Talde horren goiburua Kutxabank izango litzateke eta, gainera, hiru kutxek osatuko lukete.
- Bereizte proiektuen bidez sustatu zen Kutxabanki ematea kutxen jarduera finantzarioari lotutako aktibo eta pasibo guztiak. Hala, kutxa horiek zeharka, Kutxabanken bidez, garatuko lukete kreditu erakunde gisa duten xedea.

Kutxabankek, bereizketaren erakunde onuradun gisa, bereizitako ondarearen eskubide, akzio, betebeharrak, ardura eta karga guztiak subrogatu zituen.

Bereizitako ondarearen truke, Kutxabankek guztizko kapitala 1.981.950 mila euroekin handitu zuen. Kopuru hori 1.981.950 akzio izendunei dagokie (bakoitzak 1.000 euroko balio nominala), gehi jaulkipen prima bat; horrela, kutxa bakoitzak Kutxabanken gizarte kapitala ordezkatzeko duten beste jaulkipen berri baten akzioak jaso zituen, bakoitzak bereizitako ondarearen balioaren pareko balioarekin. Jaulkitako akzioak titulu izendunen bidez ordezkaturik daude, zirkulazioan daudenak bezala, guztiak klase berdinekoak dira eta une horretan dauden eskubide berdinak dituzte.

BBK banku fundazioa 2014ko azaroaren 20an sortu zen Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetexea¹³ banku fundazio bihurtuta, eta 2014ko azaroaren 24an EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen. Caja de Ahorros de Vitoria y Álavak adostu zuen Vital Fundazio bihurtzea 2014ko ekainaren 30ean. Hala, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen 2014ko abenduaren 22an. Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastiánek adostu zuen Kutxa Fundazio bihurtzea 2014ko urriaren 32an. Hala, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen 2014ko abenduaren 22an.

Fundazio bakoitzak Kutxabanken duen partaidetza hau da¹⁴:

Banku fundazioa	Partaidetza %
BBK fundazioa	% 57
Kutxa fundazioa	% 32
Vital fundazioa	% 11

EAEko fundazioak xedapen hauek arautzen dituzte: 26/2013 Legea; 9/2016 Legearen, ekainaren 2koaren EAEko fundazioei ("**9/2016 Legea**") buruzkoaren Euskal Autonomia Erkidegoko xedapenak; 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, EAEko fundazioen babesletza araudia onartzen duena ("**100/2007 Dekretua**") eta **101/2007 Dekretua**, EAEko fundazioen erregistroaren erregelamendua onartzen duena ("**101/2017 Dekretua**").

¹³ Bilbao Bizkaia Kutxa gizarte onurako erakunde bat zen, Caja de Ahorros Municipal de Bilbao eta Caja de Ahorros Vizcaína batzearen ondorioz sortua.

¹⁴ **I. eranskin** gisa txertatu da Kutxabanken banku fundazioei buruzko informazioa bere gobernu organoei eta gobernu korporatiboaren betebeharrak betetzeari eta kreditu erakundeko partaidetzatik eratorritako betebeharrari dagokienez.



5. KUTXABANK

Kutxabanken akziodunen batzar nagusia sozietatearen hiru akziodunek (hiru fundazioek) osatzen dute.

Erakundearen estatutuek 21. artikuluan, akziodunen batzar nagusiaren atribuzioei dagokienez, ezartzen dute akziodunek hau egingo dutela:

- Aztertu eta onartu urteko kontuak eta kudeaketa txostena.
- Onartu gizarte kudeaketa.
- Ebatzi emaitzen aplikazioaren inguruan.

Halaber, estatutuen 25. artikulua ezartzen du Batzar Nagusiak zehazten duela Administrazio Kontseiluaren kideen kopurua. Kanpoko kontseilariak edo ez-exekutiboek gehiengo zabal bat izan behar dute kontseilari exekutiboekiko, eta lehenengoek kontseilari independenteen arrazoizko kopuru bat izan behar dute (gutxienez, kontseilari guztien heren bat).

Estatutuek 27. artikuluan kontseilari koordinatzailearen kargua aitortzen dute, independentea izan behar duena.

Bestalde, administrazio kontseiluaren Erregelamenduak 6. artikuluan ezartzen du administrazio kontseiluko kideak batzar nagusiak aukeratzen dituela eta ez dela akzioduna izan behar administrazio kontseiluko kide izateko.



6. ITUNERA HURBILTZEA

“Ekintza itundua” kontzeptu juridiko bat da, baina ez dago definituta ezta garatuta ere Espainiako Bankuaren 6/2015 Zirkularretik kanpo. Horregatik, hurbilpen bat egin behar da akordioak edo itunak (izan berariazkoak edo tazituak, hitzezkoak edo idatzizkoak) dauden figuren inguruan; izan ere, figura horiek arauak definitzen duen jarduketa itunduaren antza duten erlazioak dituzte. Zehazki, baterako akordioak, sozietateen talde kontsolidagarriak eta Babes Instituzionalaren Sistemak (BIS). Halaber, kolusio jarrerak jarduketa itunduaren antza duten praktika gisa jaso dira.

6.1. Baterako akordioak

11. Informazioa Finantzarioaren Nazioarteko Arauaren, Baterako akordioaren arabera (“IFNA11”), baterako akordio bat baterako kontrola duten bi alderdi edo gehiagoren akordio bat da. Baterako kontrola akordio baten kontrol partekatua da, kontratu akordio baten arabera, eta soilik existituko da jarduera garrantzitsuei buruzko erabakiek kontrola partekatzen duten alderdi guztien ahobatezko adostasuna behar dutenean.

Aurreko definiziotik ondoriozta daiteke bi erakunde edo sozietateren edo gehiagoren arteko baterako akordioak jarduketa itundua eskatzen duela. Horregatik, kreditu erakunde berdinean partaidetza bat duten banku fundazioen arteko jarduketa itundua saihestu nahi denean, ezin dira gauzatu baterako kontrola dakarten baldintzak, arauan (IFNA11) definitzen den bezala¹⁵.

Kasu honetan, eta kontabilitate arauen arabera, BBK-k Kutxabanken kontrola izateak eragotzi egiten du pentsatzea BBK, Vital eta Kutxak Kutxabanken baterako kontrola dutenik, baina IFNA11 jasotako gogoetak adieraziko dira aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik. Hau da, saihestu egin behar da baterako akordioaren baldintzak betetzea, jarduketa itundua saihesteko.

IFNA11ren arabera, baterako akordioa edo baterako kontrola dagoela usteko da, baldintza hauetako baten bat gauzatzen denean:

- Idatziz formalizatutako eta juridikoki loteslea den kontratu akordio bat dagoenean, normalean alderdien arteko kontratu edo elkarrizketa dokumentatu moduan. Legezko mekanismoek, halaber, akordio betearazleak sor ditzakete, izan beren kabuz edo alderdien arteko kontratuak konbinatuta. Baterako akordioak gai hauek hartzen ditu:
 - Baterako akordioaren helburua, jarduera eta iraupena.
 - Administrazio kontseiluko kideak izendatzeko metodoa edo baterako akordioaren zuzendaritza organo baliokidea.
 - Erabakiak hartzeko prozesua: alderdiek erabakiak hartzea eskatzen duten gaiak; horien botorako eskubidea eta gai horietarako eskatutako babesak; kontratu akordioan erabakiak hartzeko adierazitako prozesuak zehazten du akordioaren baterako kontrola.
 - Alderdiei eskatzen zaien kapitala edo bestelako ekarpena.
 - Alderdiek baterako akordioaren aktiboak, pasiboak, diru-sarrerak, gastuak edo emaitzak partekatzeko modua.

¹⁵ IFNA11ren baterako akordioaren baldintzak jasotzen dira, alde batera utzita banku fundazioetan arau hau zuzenean aplikatzen den.



- Kolektiboki kontuan hartuko alderdi guztiek akordioaren baterako kontrola gauzatzen dutenean, hau da, akordioaren etekinetan (hau da, jarduera garrantzitsuak) era esanguratsuan eragiten duten jarduerak zuzentzeko gaitasuna dutenean.
- Jarduera garrantzitsuei buruzko erabakiek akordioa era kolektiboan kontrolatzen duten alderdien ahobatezko adostasuna eskatzen dutenean. Litekeena da iritzi profesionala beharrezkoa izatea akordioa osatzen duten alderdi guztiek edo alderdietako talde batek akordioa batera kontrolatzen duten, edo akordioa osatzen duten alderdietako batek kontrolatzen duen ebaluatzeko garaian.
- Akordioak egiteak eskatzen duenean gehiengo kualifikatuak izatea, akordioak aho batez hartzen direla inplikatzeko dutenak izatea.
- Aho batez onartzeko betekizunak akordioaren jarduera nagusiei eragiten dienean, eta ez denean behar aho batezko onespena gai eztabaidagarrietan.

Jardunbide onenen katalogoak IFNA11n zehaztutako baterako akordioak saihesten dituzten jarduketak izango ditu.

6.2. Taldeak


Arauk ezartzen du, jarduketa itunduan, betebeharrak baterako eran edo era globalean egin behar direla banku fundazio guztietarako. Hau da, jarduketa itundua denean, partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokolo bakarra egin beharko da, plan finantzario bakarra eta erreserba funtsa era globalean hornituko da fundazio guztietarako, fundazio bakarra izango balitz bezala, kreditu erakundean banku fundazioek duten partaidetza guztien batuketaren dibidenduen % 50a dela eta.

Aurrekoa soilik gertatuko balitz fundazioetako biren artean, adierazten diren efektuek ekintzan inplikaturako fundazioekiko irismen mugatua izango lukete.

Hau da, jarduketa itundua bada, betebeharrak maila kontsolidatuan ezartzen dira; beraz, kontuan izango da banku fundazioek jarduketa itundua denean jarduten dutela, alderdi lotesle gisa.

Betebeharrak maila kontsolidatuan ezarrita, aurreuposatzen da lotura justifikatu bat dagoela, zeren banku fundazioek **talde berdinekoak** dira (biak kontrol erlazio batek, zuzenak edo zeharkakoak, lotzen dituztenean, edo fundazioak edozein baliabideren bidez pertsona fisiko edo juridiko batek edo batzuek kontrolatzen duenean/dituztenean, baldin eta **batera jarduten badute edo zuzendaritza bakarraren mende** badaude akordio edo klausulengatik) edo **lotuak** daude (taldeko enpresa bat ez denean, aurrez adierazitako zentzuan, enpresak edo taldeko enpresaren bat edo batzuek, taldea existitzen bada, erakunde edo pertsona fisiko nagusiak barne, fundazio horretan eragin esanguratsua gauzatzen dutenean, bere jarduerari ekarpena egitera bideratuta egongo den partaidetza bat izateagatik bertan; horrela, lotura iraunkor bat sortuz).

Kutxabanken Banku Fundazioen kasu zehatzean, eta kontsolidazio arauak aplikatuta, jarduketa itunduaren ala ez itunduaren arteko aldea, bi sozietate egitura hauetara egongo litzateke mugatuta:



Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako kontsolidazio arauen arabera, 1514/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 16koak, Kontabilitatearen Plan Orokorra onartzen duenak ("KPO") hirugarren zatian Urteko Kontu Kontsolidatuak Formulatzeko Arauetan ezarritakoaren arabera ("ED UKKFA") eta 7/2016 Zirkularren, azaroaren 29koaren, Espainiako Bankuaren, banku fundazioek kreditu erakundeek aplikatu behar dizkien kontabilitate espezifikotasunak garatzen dituenaren arabera, eta zeinaren arabera aldatu egiten diren 4/2004 Zirkularra, abenduaren 22koa, informazio finantzario publiko eta erreserbatuari, eta egoera finantzarioen ereduak buruzkoa, eta 1/2013 Zirkularra, maiatzaren 24koa, Arriskuen Informazio Zentralari buruzkoa ("EBZ 7/2016"), BBK-k Kutxabank kontrolatzen du, zeren boto eskubide gehien du eta, beraz, BBK Kutxabanken sozietate nagusia da; hala, Kutxabankek mendeko sozietate gisa jarduten du. Baina:

- Hiru banku fundazioek alderdi lotesle gisa jarduteko, eta hortik maila kontsolidatuan betebeharrak eratoritzeko, hala kontableak nola itunduak (EBZ 6/2015etik eratorriak), BBK-k gauzatu beharko luke **baterako kudeaketa** edo **eragin esanguratsua** Kutxan eta Vitalen.
- Hiru banku fundazioek alderdi lotesle gisa jardun ez zezaten, eta, beraz, ez zezaten izan betebeharrak maila kontsolidatuan (hau da, eskakizunak maila indibidualean egiten dira itunik ez dagoelako) BBK-k ez luke baliatu behar eragin esanguratsua Kutxan eta Vitalen ezta era itunduan jardun behar ere bi horiekien.

Aipatu den bezala, Merkataritza Kodeak, KPOk, ED UKKFAk eta EBZ 7/2016k kontsolidazio arauak garatzen dituzte. Jarraian, lortu nahi den helbururako beharrezkoak direnak garatuko ditugu:

Merkataritza Kodearen 42. artikulua hau adierazten du:

"Taldea bat existitzen da sozietate batek, zuzenean edo zeharka, beste baten edo batzuen kontrola duenean edo izan dezakeenean. Zehazki, uste izan daiteke kontrolatu egiten dela sozietate batek, nagusi gisa kalifikatuko dena, beste sozietate batekiko, mendeko gisa kalifikatuko dena, egoera hauetako batean dagoenean:

- a) Boto eskubideen gehiengoa duenean.*
- b) Administrazio organoko kideen gehiengoa izendatu edo kargugabetzeko ahalmena duenean.*
- c) Boto eskubideen gehiengoa izan dezakeenean, hirugarrenekin egindako akordio bidez.*
- d) Bere botoekin administrazio organoaren kideen gehiengoa izendatzen duenean, baldin eta jarduten ari badira kontu kontsolidatuak formulatu behar diren unean eta aurreko bi ekitaldietan zehar. Zehazki, usteko da baldintza hori gauzatzen dela mendeko sozietatearen administrazio organoko kideen gehiengoa administrazio organoak direnean edo sozietate nagusiaren edo honek menderatutako beste bateko goi mailako zuzendariak direnean. [...]"*



Halaber, KPOk Urteko Kontuak Egiteko 13. Arauan ("**UKEA**") kontrolaren inguruan hau ezartzen du:

13. UKEA Taldeko, taldeaniztuneko enpresak eta enpresa lotuak: Taldea

"Enpresa edo sozietate batek urteko kontuak aurkezteko ondorioetarako, ulertuko da beste enpresa bat taldearen parte dela biak, zuzeneko edo zeharkako, kontrol erlazio batek lotzen dituenean, hau da, sozietateen taldeetarako Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako erlazio batek lotzen dituenean edo enpresak edozein baliabideren bidez pertsona fisiko edo juridiko baten edo batzuen bidez kontrolatuta daudenean, baldin eta batera jarduten badute edo zuzendaritza bakarraren mende badaude akordioen edo estatutu klausulen bidez."

Hau da, taldeko enpresak dira Merkataritza Kodeko 42. artikuluko baldintzetan kontrolatzen diren horiek.

Bestalde, KPOk 13. UKEAn taldeaniztuneko enpresa horrela definitzen du:

Taldeaniztuneko enpresa izango da, baldin eta kudeatzen badute enpresak edo, taldea existitzen bada, taldeko enpresa batek edo batzuek batera, erakunde edo pertsona fisiko nagusiak barne, eta enpresen taldeaz bestelako hirugarren batek edo batzuek.

Beraz, baterako kontrola existitzen da sozietatea batera kudeatzen dutenean taldeko sozietate batek eta erakundeen taldeaz bestelako hirugarren batek edo batzuek.

Era berean, ED UKKFaren 4. artikulua, taldeaniztuneko sozietateei buruzkoak, hau ezartzen du:

1. Talde aniztuneko sozietateak dira, kontuak kontsolidatzeko ondorioetarako, taldeko sozietate batek edo batzuek sozietatekoa ez den pertsona batekin edo batzuekin kudeatzen dituzten sozietateak, mendeko sozietateak ez direnak, batera kontrolatuz.

2. Uste da sozietate baten gaineko baterako kontrola egiten dela, kapitalean partaide izateaz gain, estatutu edo kontratu akordio bat dagoenean eta horren arabera jarduerari buruzko erabaki estrategikoei, hala finantzarioei nola ustiapenekoek, sozietatearen baterako kontrola gauzatzen duten gauzien ahobatezko adostasuna eskatzen dutenean.

Baterako kontrolerako partaidetza izateaz gain, erabaki estrategikoetarako ahobatezko adostasuna eskatzen da.

Bestalde, KPOk 13. UKEAn hau ezartzen du:

13. UKEA Taldeko, taldeaniztuneko enpresak eta enpresa lotuak: Enpresa lotuak.

Enpresa bat lotua izango da, taldeko enpresa bat izan gabe, lehen adierazitako zentzuan, enpresak edo, taldea existitzen bada, taldeko enpresa batek edo batzuek, erakunde edo pertsona fisiko nagusiak barne, enpresa horretan eragin esanguratsua badute bertan partaidetza bat izateagatik, honekin lotura iraunkor bat sortuz, betiere bere jarduerari laguntzera bideratuta badago.

Illo horretan, beste enpresa baten kudeaketan eragin esanguratsua gauzatzen da bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Enpresak edo taldeko enpresa batek edo batzuek, erakunde edo pertsona fisiko nagusiak barne, enpresan parte hartzen dutenean, eta

b) Partaidetuaren finantza eta ustiapen politikaren erabakietan esku hartzeko ahalmena izaten denean, baina kontrolatu gabe.



Era berean, eragin esanguratsua dagoela antzemango da bide hauetako edozeinen bidez:

- 1. Enpresa partaidetuaren administrazio kontseiluan edo zuzendaritzaren pareko organoan ordezkari izatea;*
- 2. Partaidetza izatea politikak ezartzeko prozesuetan;*
- 3. Garrantzi erlatiboko transakzioak egitea partaidetuarekin;*
- 4. Zuzendaritzako langileak trukatea; edo*
- 5. Funtsezko informazio teknikoa ematea.*

Eragin esanguratsua gauzatuko da, kontrako frogarik ez badago, enpresak edo taldeko enpresa batek edo batzuek, erakunde edo pertsona fisiko nagusiak barne, gutxienez, beste sozietate baten boto eskubideen 100eko 20 dutenean.

Era berean, ED UKKFAren 5. artikulua, sozietate lotuei buruzkoak, hau ezartzen du:

- 1. Sozietate lotuak izango dira, kontuak kontsolidatzeko ondorioetarako soilik, taldeko sozietate batek edo batzuek bere kudeaketan eragin esanguratsua gauzatzen dutenean.*
- 2. Beste sozietate baten kudeaketan eragin esanguratsua gauzatzen da bi baldintza hauek betetzen direnean:*
 - a) Taldeko sozietate batek edo batzuek sozietatean parte hartzea.*
 - b) Partaidetuaren finantza eta ustiapen politikaren erabakietan esku hartzeko ahalmena izaten denean, baina kontrolatu gabe eta partaidetua batera kontrolatu gabe.*
- 3. Eragin esanguratsua gauzatuko da, kontrako frogarik ez badago, taldeko sozietate batek edo batzuek, gutxienez, taldekoa ez den sozietate baten boto eskubideen 100eko 20 dutenean. Ehuneko hori zenbatzeko 3. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.*

Era berean, sozietatean partaidetza izanda, eragin esanguratsua dagoela antzemango da bide hauetako edozeinen bidez:

- a) Sozietate partaidetuaren administrazio kontseiluan edo zuzendaritzaren pareko organoan ordezkari izatea;*
- b) Parte hartzea politikak ezartzeko prozesuetan, horien artean daude dibidendu eta bestelako ekarpenei buruzko erabakiak;*
- c) Garrantzi erlatiboko transakzioak egitea partaidetuarekin;*
- d) Zuzendaritzako langileak trukatea; edo*
- e) Funtsezko informazio teknikoa ematea.*

Eragin esanguratsuen inguruko zantzua egongo da (i) sozietate batek beste sozietate baten boto eskubideen ehuneko hogeitauenean; (ii) sozietate batek beste sozietate baten Administrazio Kontseiluaren kide bat izendatzen duenean; (iii) sozietate batek beste sozietate baten politikak ezartzen dituen; (iv) sozietateen artean transakzio garrantzitsuak daudenean edo (v) zuzendariak trukatzeko direnean edo sozietateen artean funtsezko informazio teknikoa ematen denean.



Beraz, bi sozietate ez dira kontsolidagarriak baldin eta:

- Ez badago ahobatezko adostasunik bi sozietateen arteko erabaki estrategikoetarako.
- Sozietate batek ez badu botoen eskubideen ehuneko 20tik gora beste sozietate batean.
- Sozietate batek ez baditu izendatzen beste sozietate bateko Administrazio Kontseiluko kideak.
- Sozietate batek ez baditu ezartzen beste sozietate bateko politikak.
- Ez badago transakzio garrantzitsurik sozietateen artean.
- Ez badira zuzendariak trukutzen sozietateen artean.
- Ez bada funtsezko informazio teknikorik ematen sozietateen artean.

Bestalde, Urteko Kontuen KPOren hirugarren zatia, urteko kontuak egiteko arauak, 15. arauan alderdi lotuak honela definitzen ditu:

1. Alderdi bat beste bati lotua egongo da bietako bat edo era itunduan jarduten duen talde batek gauzatzen duenean edo gauza dezakeenean, zuzenean edo zeharka, edo akziodunen edo partaideen arteko itun edo akordioen arabera, kontrola edo kontrol esanguratsua beste batean, beste horren finantza eta ustiapen erabakiak hartzen direnean.

2. Nolanahi ere, alderdi lotutzat joko dira hauek:

*a) **Taldeko enpresa, lotua edo taldeaniztuntzat** jotzen diren enpresak, urteko kontuak egiteko hamahirugarren arauan adierazitako zentzuan.*

Halere, enpresa batek ez du txertatu beharko alderdi lotuekin egiten diren eragiketei buruzko memoriaren atalean jasotako informazioa, lehenengoa estatuko, erkidegoko edo tokiko Administrazio Publiko batek kontrolatua dagoenean eta hark eragin esanguratsua gauzatzen duenean eta beste enpresa, halaber, Administrazio Publiko berdinak kontrolatzen duenean edo hark era eragin esanguratsua gauzatzen duenean, betiere bien arteko eraginaren zantzurik ez badago. Eragin hori dagoela usteko da, besteak beste, eragiketak ez direnean egiten merkatuko baldintza normaletan (baldintza horiek araubide espezifikoko batek ezartzen dituztenean izan ezik).

b) Enpresaren, edo beren erakunde nagusiaren, boto eskubideetan partaidetzaren bat, zuzenean edo zeharka, duten pertsona fisikoak, batean edo bestean eragin esanguratsua gauza badezakete. Aipatutako pertsona fisikoen hurbileko senideak barne.

c) Konpainiaren edo bere nagusiaren funtsezko langileak, horrelakotzat jotzen dira enpresaren jardueren plangintza, zuzendaritza eta kontrolean, zuzenean edo zeharka, agintea eta ardura duten pertsona fisikoak; horien artean daude administratzaileak eta zuzendariak. Aipatutako pertsona fisikoen hurbileko senideak barne.

d) b) eta c) letretan aipatutako pertsonetako edozeinetan eragin esanguratsua gauza dezaketen enpresak.

e) Enpresarekin kontseilari edo zuzendariren bat partekatzen duten enpresak, salbu eta bien finantza eta ustiapen politiketan eragin esanguratsua gauzatzen ez badu.

f) Enpresaren administratzailearen ordezkariaren hurbileko senidetzat jotzen diren pertsonak, ordezkari hori pertsona juridikoa denean.



g) Enpresaren edo enpresa honen zati lotua den beste baten langileentzako pentsio planak.

3. Arau honen ondorioetarako, hurbileko senideak izango dira enpresarekin erlazionatutako erabakietan pertsona horretan eragina izan dezaketanak, edo eragin diezaiekeenak. Horien artean daude:

a) Bizikidea edo antzeko afektibitate erlazioa duen pertsona;

b) Aurreko ahaideak, ondorengo ahaideak eta anai-arrebak eta dagozkien bizikideak edo antzeko afektibitate erlazioa duten pertsonak;

c) Bizikidearen edo antzeko afektibitate erlazioa duen pertsonaren aurreko ahaideak, ondorengo ahaideak eta anai-arrebak eta dagozkien bizikideak edo; eta

d) Bere kargura dauden pertsonak edo bizikidearen edo antzeko afektibitate erlazioa duen pertsonaren kargura dagoen pertsona.

Ondorio gisa, jarduketa itundua saihesteko, ez dira egin behar aurreko praktikak Kutxabank Banku Fundazioen artean.

BBKren maila kontsolidatuko betebeharrei dagokienez, aipatu behar da EBZ 7/2016k bere hamahirugarren arauan ezartzen duela banku fundazioek urteko kontu kontsolidatuak Merkataritza Kodearen 42. artikuluan eta 1159/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera formulatuko dituztela. Aurrekoa kontuan izanda, BBK-k urteko kontu kontsolidatuak aurkeztu behar ditu, zeren Kutxabank kontrolatzen du. Ildo horretan, BBKren 2017ko urteko kontu indibidualetan hau adierazten da: *"BIS desagertzearen ondorioz, fundazioa BBK Taldea (aurrerantzean, "Taldea") osatzen duten mendeko erakundeen talde baten buru izatera pasatu zen." Ondorioz, indarrean dagoen legediaren arabera, Fundazioak 2014 ekitalditik formulatu behar ditu, eta urteko kontu indibidual horiez gain, Taldearen urteko kontu kontsolidatuak."*

BBKren urteko kontu kontsolidatuak, zeinaren irudi fidela auditoreak baliozkotzen duen, Kutxabank BBKren mendeko erakunde bat dela jasotzen du, eta ez du adierazten baterako kudeaketarik dagoenik ezta BBK-k duenik ere gainerako banku fundazioetan, Vital eta Kutxan, partaidetza esanguratsurik. Hau da, kontabilitate arauen arabera, ez dago gainerako banku fundazioen baterako kudeaketa dagoela ezta BBK-k bi banku fundazioetako edozeinetan partaidetza esanguratsua duela adierazten duen loturarik.

6.3. Babes Instituzionalaren Sistemak

Lehen ikusi bezala, banku fundazioen jarduketa itunduak fundazioetarako hainbat ondorio ditu. Horrela, jarduketa itunduak esan nahi du partaidetza finantzarioaren eta plan finantzarioaren kudeaketa protokoloa batera egitea, nahiz eta dokumentu bakoitza fundazioetako patronatuek onartu behar duten era indibidualean.

Estatuan, Liberbank-en partaidetza akzioduna duten soilik hiru banku fundazioek jarduten dute era itunduan: Caja de Ahorros de Asturias Banku Fundazioak, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Extremadura Banku Fundazioak eta Caja de Ahorros de Santander y Cantabria Banku Fundazioak.

Banku fundazio hauen jatorria Caja de Ahorro de Asturias aurrezki kutxak Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Extremadura eta Caja de Ahorros de Santander y Cantabria aurrezki kutxekin sortu zuen Babes Instituzionalaren Sistemak (BIS) dago, kreditu erakundeen talde kontsolidagarri bat eratzekeo eta hiru kutxen negozio finantzarioa bereizteko BISen (Liberbank) erakunde zentralaren alde.



Hiru kutxak banku fundazio bihurtu ondoren, horiek 2015eko otsailaren 23an Sindikatze Itun bat sinatu zuten; hori dela eta, kreditu erakunde partaidetuan era itunduan jarduten jarraitu du. Sindikatze itun hori sinatu baino lehen, Liberbank-eko jarduketa itundua 2011ko apirilaren 13an aurrezki kutxek sinatu zuten Integrazio Kontratuaren (BIS sortu zuenaren) mende zegoen, eta hainbat aldiz aldatu zen sindikatze itun gisa irauteko BIS desagertu ondoren.

Sindikatze itunaren edukiaren arabera¹⁶:

- Ituna indarrean dagoenean, Liberbank-eko akziodun gisa, alderdiek akziodunen sindikatu bat eratzen dute eta Liberbank-eko akziodun gisa dituzten eskubideak baliatzera konprometitzen dira sindikatze itunean aurreikusitakoaren arabera.
- Alderdiek sindikatze batzorde bat eratuko dute (alderdi bakoitzeko ordezkari batek osatuko duen organoa izango da), Liberbank-eko akziodunen batzar nagusian alderdien botoaren zentzua ezartzeko.

Hau da, **banku fundazioen ituna da partaidetza finantzarioarekiko alderdiek jarduketa komuna gauzatzea**. Hau da, botoaren zentzu komuna ezartzea erakunde finantzarioan partaidetza duten fundazio guztientzat.

Beraz, **aipatutako banku fundazioek garatzen duten jarduketa itunduak 2015ean sinatutako Sindikatze Itunean du babesa** eta aurrez sinatutako integrazio kontratutik eratorritzen da.

Horri dagokionez, EBZ 6/2015en hamahirugarren arauak, kudeaketa protokoloari dagokionez, hau ezartzen du: *"iv) Zenbait banku fundaziok kreditu erakunde berdinean partaidetza bat dutenean eta ezin bada aplikatu zirkular honetako hamaseigarren araua, kudeaketa protokoloak berariaz aipatu beharko du ez dagoela jarduketa itundurik beren artean. Zehazki, aurrezki kutxek transformaziotik datozen fundazioen kasuan, baldin eta aurrezki kutxa horiek iraganean akordio bat sinatu bazuten beren jarduera finantzarioa baterako eran egiteko kreditu erakunde partaidetuaren bidez edo erakunde horrek xurgatu ondoren sortutako beste baten bidez, banku fundazioek dagozkien kudeaketa protokoloetan berariaz aipatu beharko dute akordio hori ez dagoela indarrean"*.

Hortaz, **jarduera finantzarioa batera egiteko (BIS) aurrezki kutxek aurrez akordio bat sinatu izanak ez du esan nahi aurrezki kutxa horietatik sortutako banku fundazioek era itunduan jarduten dutenik**, betiere berariaz adierazten badute akordio hori ez dagoela indarrean.

BISen helburua zen aurrezki kutxek aukera ematea bere negozioak integratzeko eta berriz egituratzea lortzeko. BISetako aurrezki kutxek likidezia eta kaudimenaren elkarrekiko itunak zituzten eta emaitzak partekatzen zituzten. BISak erakunde zentral batek menderatutako kreditu erakunde talde kontsolidagarriak dira. Kreditu erakunde edo aurrezki kutxak bateratzeko mekanismo bat da; hala, elkarri laguntza ematen diote baina horregatik ez da fusio bat gauzatzen, terminoaren esanahia kontuan hartuta. Kide bakoitzak bere markarekin eta bere gobernu organoekin jarrai dezake.

Ez da nahastu behar BISekoa izatea BIS horretatik eratorritako banku fundazioen jarduketa itunduarekin. Jarduketa itunduak esan nahi du banku fundazio itunduek bakarra bezala jardutea banku partaidetzari dagokionez. Gainerakorako, banku fundazioek era independentean jarduten dute (beren gizarte ekintzari dagokionez).

Hortaz, jarduketa itundua saihesteko, banku fundazioek dagozkien kudeaketa protokoloetan aipatu beharko dute beren jatorriko BISa, halakorik bada, ez dagoela indarrean eta, gainera, ez du sindikatze itunik existitu behar.

¹⁶ <https://corporativo.liberbank.es/inversores-y-accionistas/informacion-general/pactos-parasociales>.



7. JARDUNBIDE ONENEN KATALOGOA

Katalogo honen helburua da zehaztea banku fundazioen jarduketa ez itundua indartuko lukeen gobernu korporatiboaren praktikak, alde batera utzita arau hauek ezarritakoa: *26/2913 Legean, abenduaren 27koan, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzkoa ("26/2013 Legea"), 9/2016 Legearen, ekainaren 2koaren EAeko fundazioei buruzkoa ("9/2016 Legea"), 6/2015 Zirkularra, azaroaren 7koa, Aurrezki kutxa eta banku fundazioentzako Espainiako Bankuak emana, baloreen merkatu ofizialetan negoziatorako onartutako baloreak jaulkitzen ez dituzten aurrezki kutxen ordainsarien eta gobernu korporatiboaren txostenen alderdi jakin batzuei buruzkoa eta kreditu erakundeetako beren partaidetzetatik eratorritako banku fundazioen betebeharrei buruzkoa ("EBZ 6/2015")* eta banku fundazioei aplikatu dakiekeen gainerako araudia. Jarduketa itundua da kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen zuzendaritzan izaera estrategikoko oinarritzko irizpide komunak onartzea.

Katalogoak 5 Titulu ditu, banku fundazioen gobernu organoetako buruzkoak, Patronatuak erabakiak hartzeari buruzkoak, kreditu erakunde berdinean partaidetza duten fundazioen arteko erlazioei buruzkoak, kreditu erakundeetako partaidetzari buruzkoak, eta kreditu erakundeetako inplikazioei buruzkoak.

Definizioak

- **Banku fundazioa:** banku fundazioetako joko da kreditu erakunde batean, zuzenean edo zeharka, gutxienez erakundearen kapitalaren edo boto eskubidearen ehuneko 10eko partaidetza mantentzen duena, edo bere administrazio organotik kideren bat izendatu edo kargutik kentzeko partaidetza mantentzen duena.
- **Patronatua:** Patronatua banku fundazioen gobernu eta ordezkari organo nagusia da. Betebeharrak betetzen direla kontrolatu, gainbegiratzeko eta horiei buruz Espainiako Bankua informatzeko ardura du.
- **Arrisku gosearen estrategia (RAF):** kudeaketa tresna honek metriken bidez erakundeak esposizioa duen arrisku bakoitza monitorizatzen du.
- **Arrisku gosea:** erakunde finantzario bat onartzeko prest dagoen arrisku maila eta mota bere helburu estrategikokoak lortzeko, baita bere negozio plana lortzeko ere.
- **Eragiketa lotuak:** pertsona fisiko edo juridikoen artean egiten dira. Pertsona horien artean beren arteko lotura zehatz bat dago, izan enpresa talde berdinekoak direlako, administratzaileak partekatzen dituztelako, akziodun komunak dituztelako edo eragiketa egiten duten pertsonen artean lehenengo edo bigarren mailako familia erlazio bat dagoelako.
- **Alderdi lotua:** bi alderdien artean, horietako batek edo itunduta jarduten duen talde batek, zuzenean edo zeharka edo akziodunen edo partaideen arteko itun edo akordioaren arabera jarduten duenean edo jarduteko aukera duenean, beste bat kontrolatu edo bestearen finantza eta ustiapen erabakietan era esanguratsuan eragiten duenean urteko kontuak egiteko hamabosgarren arauaren arabera, 1514/2007 Errege Dekretuaren, azaroaren 16koaren, Kontabilitateko Plan Orokorra onartzen duenaren hirugarren zatia arabera.
- **Izaera estrategikoko oinarritzko irizpideak:** Aurrezki kutxa eta banku fundazioentzako Espainiako Bankuaren azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularren hirugarren arauan, baloreen merkatu ofizialetan negoziatorako onartutako baloreak jaulkitzen ez dituzten aurrezki kutxen ordainsarien eta gobernu korporatiboaren txostenen alderdi jakin batzuei buruzkoaren arabera definitzen dira eta kreditu erakundeetako beren partaidetzetatik eratorritako banku fundazioen betebeharrei buruzkoan.



I. Titulua – Banku fundazioen gobernu organoak

Jarraian, fundazioen jarduketa itundua saihestera bideratutako banku fundazioen gobernu organoen zenbait alderdi adierazten dira.

Patronatua

Patronatua banku fundazioen gobernu eta ordezkari organo nagusia da. 26/2013 Legearen 38. artikulua araberak, fundatze helburuak egiteko behar diren ahalmen eta eskumen guztiak gauzatzea dagokio, fundatze helburuak betetzea eta fundazioen ondarea integratzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea dagokio. Halaber, kontrolatu, gainbegiratzeko eta horiei buruz Espainiako Bankua informatzeko ardura du.

Patronatuko kideek, 26/2013 Legearen 39. artikuluan aurreikusitako talderen batekoak izatekoaz gain, betekizun hauek bete behar dituzte kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen arteko jarduketa itundua saihesteko:

- 1) Banku fundazio bateko patrono izatea bateraezina da beste banku fundazio batekoa izatearekin, baldin eta lehenengoaren erakunde finantzario berdinarekin akzioduna bada.
- 2) Banku fundazio bateko patrono izatea bateraezina da beste banku fundazioetako patronoekiko loturarekin, katalogo honetan¹⁷ jasotako alderdi lotuen definizioaren arabera, betiere aipatutako fundazioek partaidetza badute kreditu erakunde berdinean.
- 3) Banku fundazio baten patrono izatea bateraezina da erakunde finantzario pareko karguetan jardutearekin, baldin eta banku finantzarioa erakunde finantzarioaren akzioduna bada, edo banku taldeak kontrolatutako beste erakunde batzuetan jardutearekin.
- 4) Banku fundazioen patronoek zintzotasun, profesionaltasun, esperientzia eta gobernu onaren betekizunak bete behar dituzte banku erakunde eska dakizkien bezala, fundazio nagusi gisa jarduten duen banku fundazioari eska dakizkionak behintzat.

Zuzendaritza nagusia

- 5) Aurrez aipatutako zintzotasun, ezagutza eta esperientzia betekizunak berdin gauzatu behar dituzte zuzendari nagusiek edo asimilatuek, baita barne kontrolerako funtzioen arduradunek ere eta banku fundazioaren jardura egunero garatzeko funtsezko bestelako lanpostuek.

Batzorde delegatuak

- 6) Banku fundazioek, alde batera utzita araudiaren arabera ezarritako batzordeak, gutxienez funtzio hauek dituzten batzorde delegatu hauek izan behar dituzte, kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen jarduketa itundua saihesteko:
 - a. Izendapenen eta ordainsarien batzordea: patronoak eta gainerako gobernu organoak izendatu eta kargugabetzeko funtzioak gauzatzean, izendapenen eta ordainsarien batzordeak bermatu behar du izendatutako karguek jarduketa itundua saihesteko ezarritako betekizun guztiak betetzen dituztela.
 - b. Inbertsio eta arriskuaren batzordea: banku fundazioek fundazioak erakunde finantzarioan duen partaidetzarekiko proportzionala den inbertsioak eta arriskuak kudeatzeko funtzioa duen

¹⁷ Definizio horrek bere oinarria Urteko Kontuen KPOren hirugarren zatian du, urteko kontuak egiteko hamabosgarren arauan.



batzorde bat izan behar dute. Batzorde horretako kideek ezagutza, gaitasun eta esperientzia egokiak izan behar dituzte beren zereginetan jarduteko.

Inbertsioen batzordearen zeregina da patronatua informatzea banku fundazioak egiten duen izaera estrategikoko eta egonkorreko inbertsio eta desinbertsioei buruz.

Arriskuen batzordeak arriskuak kontrolatu eta kudeatzeko barne funtzioa gauzatzen du, arriskuak kontrolatu eta kudeatzeko sistemen funtzionamendu ona ziurtatzeko, eta era aktiboan parte hartzen du arriskuen estrategia lantzen eta kudeaketari buruzko erabaki garrantzitsuetan.

Bere eginkizunak gauzatzean, inbertsioen eta arriskuen batzordeak banku fundazioaren arrisku eta errentagarritasun profila zehaztuta izan beharko du, hau da, Arrisku Gosearen Esparrua (RAF, ingelesez¹⁸), erakunde finantzario partaidetuko bere partaidetza kudeatzeari dagokionez.

Kreditu erakunde berdinean partaidetza duen banku fundazioetako bakoitzaren arrisku profila patronatuan onartu behar da eta gainerako fundazioekiko era independentean.

II. Titulua – Erabakiak hartzea patronatuan

Jarraian, banku fundazioek patronatuan erabakiak hartzeko kontuan izan behar dituzten zenbait alderdi adierazten dira, kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen jarduketa itundua saihesteko.

Patronatuak erakunde finantzarioko partaidetzari buruzko gaiak direla eta erabakiak hartu behar dituenean, kontuan izan behar ditu alderdi hauek guztiak:

- 7) Bilerarik, 9/2016 Legearen 23. artikuluan aurreikusia, egin gabe ezingo dira erabakiak hartu gai hauetan:
 - a. Kreditu erakunde partaidetuan banku fundazioak duen partaidetzaren kudeaketa arautzen duten oinarrizko irizpide estrategikoak hartzea.
 - b. Banku fundazioaren patronatuaren eta kreditu erakunde partaidetuaren gobernu organoaren arteko erlazioak ezartzea.
 - c. Banku fundazioaren eta erakunde partaidetuaren artean eragiketak egiteko irizpide orokorrak ezartzea, baita interes gatazkak saihesteko aurreikusitako mekanismoak ere.
- 8) Erabakiak hartu aurretik, banku fundazioan estrategikotzat jotzen diren erabakiak ezarri behar dira, banku fundazio bakoitzaren patronatuak zehaztutako oinarrizko irizpide estrategikoen esparruan.
- 9) Oinarrizko irizpide estrategikoak bereizita itunduko ditu kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen patronatu bakoitzak. Independentzia hori bermatzeko, irizpide estrategikoak patronatuak ezarriko ditu eta kreditu erakunde berdinean partaidetza duen banku fundazio bakoitzaren kudeaketa protokoloan ezarri behar dira.
- 10) Banku fundazio bakoitzak kreditu erakundeko partaidetzari buruzko erabakiak era berezian hartzen dituela bermatzeko, banku fundazio bakoitzarentzat oinarrizko irizpide estrategikoak bermatzeaz gain:
 - a. Banku fundazio bakoitzak bere erabakia hartuko du erakunde finantzarioaren administrazio kontseilua egin baino lehen.

¹⁸ Risk appetite framework.



- b. Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazio guztiek patronatuaren bilerak egingo dituzte erabaki estrategikoak hartuko diren bileraren egun berdinean.
 - c. Fundazio bakoitza erakunde finantzarioaren administrazio kontseiluaren bilerara joango da, erabakia fundazioaren baitan hartu dela ziurtatuta.
 - d. Patronatu desberdinen erabakia kreditu erakunde partaidetuaren Administrazio Kontseiluan bilera egiten den unean ziurtatu eta jakinaraziko da.
- 11) Patronatuaren bilerak egiten direnean, gobernu korporatiboaren urteko txostena idatziz zabaltzearekiko osagarri gisa, patronatuaren presidentek hitzez informatu beharko die patronoei, behar besteko zehaztasunarekin, banku fundazioaren gobernu korporatiboaren alderdi garrantzitsuenen inguruan eta, bereziki:
- a. Aurreko bileratik izan diren aldaketei buruz.
 - b. Banku fundazioen jarduketa itundua saihesteko gobernu organoaren jardunbide onenen Katalogoko gomendioetako baten bat ez jarraitzeko fundazioak dituen arrazoi zehatzei buruz eta, halakorik bada, arlo horretan aplikatzen dituen arau alternatiboetako bati buruz.

III. Titulua – Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten fundazioen arteko erlazioak

- 12) Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen arteko jarduketa itundua saihesteko, **ezingo da gauzatu fundazio horien artean praktika hauetako bat bera ere:**
- a. Idatziz formalizatutako eta juridikoki loteslea den kontratu akordio bat izatea, normalean alderdien arteko kontratu edo elkarrizketa dokumentatu moduan. Legezko mekanismoek, halaber, akordio betearazleak sor ditzakete, izan beren kabuz edo alderdien arteko kontratuak konbinatuta.
 - b. Kolektiboki kontuan hartutako alderdi guztiek akordioaren baterako kontrola gauzatzea, hau da, akordioaren etekinetan era esanguratsuan eragiten duten jarduerak zuzentzeko gaitasuna dute.
 - c. Jarduera garrantzitsuei buruzko erabakiek akordioa era kolektiboan kontrolatzen duten alderdien ahobatezko adostasuna eskatzea.
 - d. Akordioak egiteak eskatzen duenean gehiengo kualifikatuak izatea, akordioak aho batez hartzen direla inplikatzeko dutenak izatea.
 - e. Aho batez onartzeko betekizunak akordioaren jarduera nagusiei eragitea, eta ez behar izatea aho batezko onespena gai eztabaidagarrietan.
 - f. Banku fundazioek aho batez erabakiak hartzea erakunde finantzarioko partaidetzari dagokionez, batez ere erabaki estrategikoen kasuan.
 - g. Banku fundazio batek beste banku fundazio baten patronatuan parte hartzea.
 - h. Banku fundazio bateko patronatuko edo zuzendaritza nagusiko kideak beste banku fundazio batek izendatzea.
 - i. Banku fundazio batek beste banku fundazio baten politikak ezartzea.
 - j. Bi banku fundazioen artean zuzendaritza batzordeko patronoak edo kideak trukitzea.



- k. Banku fundazioen artean funtsezko informazio teknikoa hornitzea.
 - l. Elkarrekiko kaudimen konpromiso bat izatea banku fundazioetatik berehala eskura daitezkeen funtsen bidez.
 - m. Banku fundazioek elkarrekiko likidezia konpromiso bat izatea.
 - n. Banku fundazioek elkarri laguntza finantzarioa ematea.
 - o. Fundazio bakoitzeko patronatuen kideen artean alderdi lotuak izatea.
 - p. Alderdi lotuak izatea patronatu bakoitzak erakunde finantzario partaidetuaren administrazio kontseiluko interesak ordezkatzeko proposatutako kontseilarien eta gainerako fundazioen patronatuetako kideen edo gainerako fundazioek proposatutako kontseilarien artean.
- 13) Baldin eta banku fundazioek beren artean badituzte edo bankuarekin, sozietate lehiakideekin sektore jakinetan, badituzte fundazioek enpresa lehiakideak dituzten sektore hauetan lehia saihesten duten itunak.
- 14) Horretarako, banku fundazioek zehatz zehaztu beharko dituzte eta argitaratu beren webgunean:
- a. Banku fundazioen arteko behin-behineko negozio erlazioak, baita banku fundazioekin edo banku fundazioen taldeko edozein enpresarekin kreditu erakundeak dituenak ere; horrela, saihesteko ituna sozietate partaidetuen bidez gauza dadila.
 - b. Izan daitezkeen behin-behineko interes gatazkak ebazteko aurreikusitako mekanismoak.

IV. Titulua – Kreditu erakundeko partaidetza

Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen jarduketa itundua saihesteko, helburua da banku fundazio guztiek beren inbertsio politika izatea, partaidetza kudeatzeko beren protokoloa izatea, bere plan estrategikoa izatea eta beren urteko plan finantzarioa izatea. Horrela, banku fundazio guztiek hau egin beharko dute, alde batera utzita daukaten partaidetza ehunekoa:

- 15) Izaera estrategikoko oinarritzko irizpideak zehazten dituen partaidetza finantzarioa kudeatzeko protokolo bat lantzea. Protokoloak honi buruzko informazioa izango du:
- a. Kreditu erakundeko partaidetzaren helburua eta aipatutako partaidetzak beste inbertsio alternatiba batzuen aurrean eskaintzen dituen sinergiak edo abantailak, fundazioaren gizarte ekintzari dagokionez.
 - Kreditu erakundearentzat banku fundazio bakoitzak nahi duen negozio eredua adieraziko da negozioa zer sektoretara bideratzen den adierazita. Banku fundazio bakoitzak negozio eredu independente bat aurkeztuko du. Eredu hori patronatuak onartu beharko du eta banku fundazio bakoitzeko menderatze kontseilariak botatuko dituzte, kreditu erakundearen baitan, negozio ereduarekin erlazionatutako politikak banku fundazioetan aurrez ezarritako erudian oinarrituta.
 - Fundazioek beren estrategia egokituko dute kreditu erakundean kapitalaren errekerimendu dinamikoen bilakaerara Europako Bankuen Gainbegiratzen Batzordearen erabakien ondorioz.
 - Banku fundazioak berariaz adieraztea ez dagoela itun parasozialik beste akziodun batzuekin, beren arteko barne erlazioak zehaztu edo aldatzen dituzten zuzendaritzari buruzko izaera estrategikoko irizpideetan.



- Irizpide estrategikoak partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokolo bakoitzean egongo dira banatuta. Banku fundazio bakoitzaren menderatze kontseilariak kreditu erakundearen baitan botatuko dituzte irizpide estrategikoekin erlazionatutako politikak bere beren banku fundazioek zehaztutakoen arabera.
- b. Berariaz adieraztea ez dagoela jarduketa itundurik beren artean. Zehazki, aurrezki kutxen transformaziotik datozen fundazioen kasuan, baldin eta aurrezki kutxa horiek iraganean akordio bat sinatu bazuten beren jarduera finantzarioa baterako eran egiteko kreditu erakunde partaidetuaren bidez edo erakunde horrek xurgatu ondoren sortutako beste baten bidez, banku fundazioek dagozkien kudeaketa protokoloetan berariaz aipatu beharko dute akordio hori ez dagoela indarrean.
- 16) Urteko plan finantzario bat egitea eta bertan zehaztuko da kreditu erakunde partaidetuak izan ditzakeen kapital beharrei aurre egiteko modua eta erakunde finantzarioetan inbertitzeko strategiaren oinarritzko irizpideak. Plan finantzario horrek ezingo die laguntza finantzarioerik eskaini beste banku finantzario batzuei horiek kaudimen edo likidezia arazoak dituztenean.
- 17) Banku fundazioen patronatuek urtean behin onartu behar dituzte beren arrisku estrategiak.
- 18) Banku fundazio bakoitzaren arrisku gosearen esparrua ezartzea. Arrisku Gosearen Esparrua banku fundazioaren arriskuaren kultura indartu ahal izateko tresna bat da. RAFen bidez, zehazten dira eta erakunde osoari jakinarazten zaizkio banku fundazioaren arrisku profila eta arrisku gosea neurtzeko irizpide objektiboak, horiek kontuan izan daitezkeen erakunde finantzarioan partaidetza kudeatzerako garaian.
- a. Zehazki, banku fundazio bakoitzak Arrisku Gosearen bere Esparrua ezarri behar du (RAF, ingelesez¹⁹), mugak eta helburuak ezartzeko erakunde finantzario batean duen partaidetzari dagokionez, hartutako arriskuak gainbegiratu eta kontrolatzeko mekanismoak ezartzeko eta barne gobernuaren funtzionamendu ona sustatzeko.
- b. Banku fundazioen Arrisku Gosearen Esparruak fundazioak erakunde finantzario bateko partaidetza kudeatzean dituen arrisku material guztiak hartu behar ditu.
- c. Arrisku Gosearen Esparruak eduki hau izan behar du:
- Arrisku gosearen definizioa, onarpena, segimendua eta kontrola zehaztea, jarduketa protokoloak barne gosearekiko arrisku profila desbideratzen den kasuan.
 - Balizko arriskuak zehaztea eta bakoitzarentzat arrisku gosea ezartzea.
 - Neurri kuantitatibo eta kualitatiboak ezartzea. Horiek, era objektiboan, aukera ematen dute jarduketa desberdinen arrisku profila ezagutzeko eta banku fundazioaren arrisku profilarekin konparatzeko.
 - Patronoen ardurak ezartzea arriskuak kontrolatzeko funtzioaren arabera.
- d. Era berean, Arrisku Gosearen Esparruak ezaugarri hauek izan behar ditu:
- Erakunde finantzarioaren eta plan estrategikoen negozio ereduarekiko sendoa izatea.
 - Etorkizunerako izatea.
 - Urtean behingoa izatea, hau da, RAF urtean behin berrikustea.

¹⁹ Risk appetite framework.



- e. Banku fundazio bakoitzaren menderatze kontseilariak kreditu erakundearen baitan botatuko dituzte arriskuarekin erlazionatutako irizpideak beren banku fundazioek zehaztutakoen arabera.
 - f. Horrela, banku fundazio bakoitzak korporazio eta arriskuen kultura bat izango du definituta eta arrisku gosearen esparru eta estrategia independente bat. Hori aldiaren behin patronatu bakoitzak eguneratuko du eta erabaki estrategiko bakoitzean jardun eta botatuko du aurrez definitutako arrisku profilaren arabera.
- 19) Espainiako Bankuaren eta Europako Banku Agintaritzaren ("**EBA**" ingelesez) giden jarraibideekin bat datorren arriskua kudeatzeko plan bat ezartzea.
- 20) Prozedura bat ezartzea bermatzeko, patronatuak kreditu erakunde berdinean partaidetza duten gainerako banku fundazioekiko kontseilari independenteak izendatzen dituela.

V. Titulua – Kreditu erakundeko inplikazioak

Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten fundazioen arteko jarduketa itundua saihesteko helburuarekin, praktika hauek gauzatu behar dira kreditu erakunde partaidetuaren baitan:

- 21) Administrazio Kontseiluaren akordioetako botoetan independentzia bermatzen duen mekanismo bat ezarriko da. Horretarako:
- a. Kreditu erakunde partaidetuaren administrazio kontseiluan landu beharreko gaien zerrenda bilera egin aurretik ezagutu beharko da, eta adierazi beharko da zein gai joko diren erabaki estrategikotzat, fundazioek erabakia era independentean har dezaten bileraren aurretik, katalogo honetako II. Tituluan ezarritakoaren arabera.
 - b. Erabaki estrategikoak landuko diren kasuetan, patronatu desberdinen erabakia kreditu erakunde partaidetuaren Administrazio Kontseiluan bilera egiten den unean ziurtatu eta jakinaraziko da. Horretarako, bermatu beharko da fundazio bakoitzaren erabakia fundazioak hartzen duela administrazio kontseiluaren bilera egin baino lehen eta kreditu erakundeko partaidetza duten gainerako fundazioekiko era independentean.
 - c. Banku fundazioak administrazio kontseiluan izendatutako kontseilarien botoak ezin du izan banku fundazioaren kudeaketa protokoloan ezarritakoaren aurkakoa, fundazioak zehaztutako oinarritzko irizpide estrategikoen arabera.
- 22) Erakunde finantzarioaren akziodunetan banku fundazio bat baino gehiagotako partaidetza dagoenean, administrazio kontseiluko kideen erdiek kontseilari independenteak izan beharko dute.
- 23) Administrazio kontseiluan ezin dira ahalmenak delegatu erakunde finantzarioan partaidetza duten banku fundazioek izendatutako kontseilarien boto eskubidea baliatzeko.



8. KATALOGOAREN APLIKAGARRITASUNA KUTXABANK-EN BANKU FUNDAZIOETAN

Jarraian, BBK Banku Fundazioan katalogoak izan behar duen aplikazioa garatuko da, aztertzeko hiru arlo ezarriz:

- 1) Betetzen diren praktikak eta BBKren kudeaketa eta kontrolerako tresnak jasotzen dituzten dokumentuetan daude adierazita.
- 2) Betetzen diren praktikak baina ez direnak berariaz adierazten BBKren kudeaketa eta kontrolerako tresnak jasotzen dituzten dokumentuetan.
- 3) Praktika proposamenak, BBK-k bere politiketan txerta ditzakeenak kreditu erakundeko partaidetzaren gaur egungo kudeaketa indartzeko.

8.1. Praktika islatuak

- Banku fundazio baten patrono izatea bateraezina da erakunde finantzarioko pareko karguetan jardutearekin, baldin eta banku finantzarioa erakunde finantzarioaren akzioduna bada, edo banku taldeak kontrolatutako beste erakunde batzuetan jardutearekin (3. praktika)²⁰.
- Berariaz adieraztea ez dagoela jarduketa itundurik beren artean. Zehazki, aurrezki kutxen transformaziotik datozen fundazioen kasuan, baldin eta aurrezki kutxa horiek iraganean akordio bat sinatu bazuten beren jarduera finantzarioa baterako eran egiteko kreditu erakunde partaidetuaren bidez edo erakunde horrek xurgatu ondoren sortutako beste baten bidez, banku fundazioek dagozkien kudeaketa protokoloetan berariaz aipatu beharko dute akordio hori ez dagoela indarrean (15.b praktika)²¹.
- Urteko plan finantzario bat egitea eta bertan zehaztuko da kreditu erakunde partaidetuak izan ditzakeen kapital beharrei aurre egiteko modua eta erakunde finantzarioetan inbertitzeko estrategiaren oinarritzko irizpideak. Plan finantzario horrek ezingo die laguntza finantzariorik eskaini beste banku finantzario batzuei horiek kaudimen edo likidezia arazoak dituztenean (16. praktika)²².

8.2. Berariaz jaso gabeko praktikak

- Banku fundazioen patronoek zintzotasun, profesionaltasun, esperientzia eta gobernu onaren betekizunak bete beharko dituzte banku erakundeei eska dakizkien bezala, fundazio nagusi gisa jarduten duen banku fundazioari eska dakizkionak behintzat (4. praktika).
- Aurrez aipatutako zintzotasun, ezagutza eta esperientzia betekizunak berdin gauzatu behar dituzte zuzendari nagusiek edo ordezkariak, baita barne kontrolerako funtzioen arduradunek ere eta banku fundazioaren jarduera egunero garatzeko funtsezko bestelako lanpostuek (5. praktika).
- Berariaz aipatu behar dute ez dela praktika egiten "Baterako akordio", "Taldea" eta "BIS" sailkapenetara, jardunbide onen Katalogoan definitzen diren bezala, hurbiltzen diren fundazio horien artean (12. praktika).

²⁰ BBK estatutuak.

²¹ BBK kudeaketa protokoloa.

²² Plan finantzarioa.



8.3. Txertatu beharreko praktiken proposamenak

- Banku fundazio bateko patrono izatea bateraezina da beste banku fundazio batekoa izatearekin, baldin eta lehenengoaren erakunde finantzario berdinarekin akzioduna bada (1. praktika).
- Banku fundazio bateko patrono izatea bateraezina da beste banku fundazioetako patronoekiko loturarekin, katalogo honetan²³ jasotako alderdi lotuen definizioaren arabera, betiere aipatutako fundazioek partaidetza badute kreditu erakunde berdinean (2. praktika).
- Izendapenen batzordeak bermatu behar du banku fundazioaren patronoek, baita zuzendari nagusi edo parekoek ere, zintzotasun, profesionaltasun, esperientzia eta gobernu onaren betekizunak banku erakundeei eska dakizkien pareko eran betetzen dituztela (6.a. praktika).
- Banku fundazioak, jardunbide onenen katalogoan deskribatutakoaren arabera, inbertsioak eta arriskuak kudeatzeko batzorde bat izan behar du fundazioak erakunde finantzarioan duen partaidetzarekiko era proportzionalan (6.b. praktika).
- Banku fundazioak berariaz adierazi behar du ezin duela gai hauei buruzko erabakirik hartu bilerarik egin gabe (7. praktika):
 - a. Kreditu erakunde partaidetuan banku fundazioak duen partaidetzaren kudeaketa arautzen duten oinarrizko irizpide estrategikoak hartzea.
 - b. Banku fundazioaren patronatuaren eta kreditu erakunde partaidetuaren gobernu organoaren arteko erlazioak ezartzea.
 - c. Banku fundazioaren eta erakunde partaidetuaren artean eragiketak egiteko irizpide orokorrak ezartzea, baita interes gatazkak saihesteko aurreikusitako mekanismoak ere.
- Erabakiak hartu aurretik, banku fundazioan estrategikotzat jotzen diren erabakiak ezarri behar dira, banku fundazio bakoitzaren patronatuak zehaztutako oinarrizko irizpide estrategikoen esparruan (8. praktika).
- Oinarrizko irizpide estrategikoak bereizita itunduko ditu kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazioen patronatu bakoitzak. Independentzia hori bermatzeko, irizpide estrategikoak patronatuak ezarriko ditu eta kreditu erakunde berdinean partaidetza duen banku fundazio bakoitzaren kudeaketa protokoloan ezarri behar dira (9. praktika).
- Banku fundazio bakoitzak kreditu erakundeko partaidetzari buruzko erabakiak era berezian hartzen dituela bermatzeko, banku fundazio bakoitzarentzat oinarrizko irizpide estrategikoak bermatzeaz gain (10. praktika):
 - a. Banku fundazio bakoitzak bere erabakia hartuko du erakunde finantzarioaren administrazio kontseilua egin baino lehen.
 - b. Kreditu erakunde berdinean partaidetza duten banku fundazio guztiek patronatuaren bilerak egingo dituzte erabaki estrategikoak hartuko diren bileraren egun berdinean.
 - c. Fundazio bakoitza erakunde finantzarioaren administrazio kontseiluaren bilerara joango da, erabakia fundazioaren baitan hartu dela ziurtatuta.
 - d. Patronatu desberdinen erabakia kreditu erakunde partaidetuaren Administrazio Kontseiluan bilera egiten den unean ziurtatu eta jakinaraziko da.

²³ Definizio horrek bere oinarria Urteko Kontuen KPOn hirugarren zatian du, urteko kontuak egiteko hamabosgarren arauan.



- Patronatuaren bilerak egiten direnean, gobernu korporatiboaren urteko txostena idatziz zabaltzearekiko osagarri gisa, patronatuaren presidentek hitzez informatu beharko die patronoei, behar besteko zehaztasunarekin, banku fundazioaren gobernu korporatiboaren alderdi garrantzitsuenen inguruan eta, bereziki (11. praktika):
 - a. Aurreko bileratik izan diren aldaketei buruz.
 - b. Banku fundazioen jarduketa itundua saihesteko gobernu organoaren jardunbide onenen Katalogoko gomendioetako baten bat ez jarraitzeko fundazioak dituen arrazoi zehatzei buruz eta, halakorik bada, arlo horretan aplikatzen dituen arau alternatiboak buruz.
- Baldin eta banku fundazioek sozietate lehiakideak badituzte beren artean edo bankuarekin sektore jakin batzuetan, zaindu behar dute ez dagoela fundazioek enpresa lehiakideak dituzten sektore hauetan lehia saihesten duten itunik (13. praktika).
- Banku fundazioek zehatz zehaztu beharko dituzte eta argitaratu beren webgunean (14. praktika):
 - a. Banku fundazioen arteko behin-behineko negozio erlazioak, baita banku fundazioekin edo banku fundazioen taldeko edozein enpresarekin kreditu erakundeak dituenak; horrela, saihesteko ituna sozietate partaidetuen bidez gauza dadila.
 - b. Izan daitezkeen behin-behineko interes gatazkak ebazteko aurreikusitako mekanismoak.
- Kudeaketa protokoloak izaera estrategikoko oinarriko irizpideetan hauek txertatuko ditu (15.a praktika):
 - a. Kreditu erakundearentzat banku fundazio bakoitzak nahi duen negozio ereduaren negoziua zer sektoretara bideratzen den adierazita. Banku fundazio bakoitzak negozio eredu independente bat aurkeztuko du. Eredu hori patronatuak onartu beharko du eta banku fundazio bakoitzeko menderatze kontseilariak botatuko dituzte, kreditu erakundearen baitan, negozio ereduarekin erlazionatutako politikak banku fundazioetan aurrez ezarritako ereduaren oinarrituta.
 - b. Fundazioek beren estrategia egokituko dute kreditu erakundearen kapitalaren errekerimendu dinamikoen bilakaerara Europako Bankuen Gainbegiratzen Batzordearen erabakien ondorioz.
 - c. Banku fundazioak berariaz adieraztea ez dagoela itun parasozialik beste akziodun batzuekin, beren arteko barne erlazioak zehaztu edo aldatzen dituzten zuzendaritzari buruzko izaera estrategikoko irizpideetan.
 - d. Irizpide estrategikoak partaidetza finantzarioaren kudeaketa protokolo bakoitzean egongo dira banatuta. Banku fundazio bakoitzaren menderatze kontseilariak kreditu erakundearen baitan botatuko dituzte irizpide estrategikoekin erlazionatutako politikak beren banku fundazioek zehaztutako araberan.
- Banku fundazioen patronatuek urtean behin onartu behar dituzte beren arrisku estrategiak (17. praktika).
- Banku fundazio bakoitzaren arrisku gosearen esparrua ezartzea jardunbide onenen Katalogoan ezarritakoaren arabera (18. praktika).
- Espainiako Bankuaren eta **Europako Banku Agintaritzaren** giden jarraibideekin bat datorren arriskua kudeatzeko plan bat ezartzea (19. praktika).



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

- Prozedura bat ezartzea bermatzeko, patronatuak kreditu erakunde berdinean partaidetza duten gainerako banku fundazioekiko kontseilari independenteak izendatzen dituela (20. praktika).
- Jardunbide onenen Katalogoarekin bat datorren Administrazio Kontseiluaren akordioetako botoetan independentzia bermatzen duen mekanismo bat ezartzea (21. praktika).
- Bermatu beharko du erakunde finantzarioaren akziodunetan banku fundazio bat baino gehiagotako partaidetza dagoenean, administrazio kontseiluko kideen erdiek kontseilari independenteak izan beharko dutela (22. praktika).
- Bermatuko beharko du Administrazio kontseiluan ezingo direla ahalmenak delegatu erakunde finantzarioan partaidetza duten banku fundazioek izendatutako kontseilarien boto eskubidea baliatzeko (23. praktika).

Aurrekoaren arabera, praktika batzuk lortzeko hiru banku fundazioek praktika horiek bereganatu behar dituzte. Nolanahi ere, errefortzua handiagoa izango litzateke banku fundazio guztiek proposatutako neurriak hartuko balituzte.



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

9. ONDORIOA

Ikerlanean zehar, adierazi dira BBK-k zergatik ez duen jarduten Kutxabanken partaidetza duten gainerako banku fundazioekin era itunduan.

7. atalean jasotako jardunbide onak maximoen katalogo bat dira, zeren BBK-k araudia betetzen duela erabat egiaztatzen da bere urteko kudeaketan. Halere, gobernu korporatiboen protokoloetan sartzeari borondatezkoa izanda, 8. atalean iradokitako praktika batzuk ezarri gero, asko indartuko litzateke BBK-k banku fundazioen artean ez itunik izateko eskakizunen arabera jarduten duen alderdia.



I. ERANSKINA²⁴

BBK banku fundazioa

Jarraian, BBK banku fundazioaren ezaugarri nagusiak adieraziko dira:

Partaidetza	% 57		
Helburua	BBK-k gizarte helburu bat dauka, bere jarduera nagusia gizarte ekintzari arreta ematera eta garatzera eta kreditu erakunde bateko partaidetza eta bere ondarea era egokian kudeatzera bideratuz.		
Zifra nagusiak	Kontzeptua (<i>milaka euro</i>)	2016	2017
	Aktiboa, guztira	2.946.695	2.997.923
	Ondare garbia	2.974.563	2.922.081
	Ekitaldiko emaitza	32.724	52.482
Gizarte Ekintzaren plan estrategikoa	BBK banku fundazioak bere jarduera sei jarduketa ildotan garantzen du, indarrean dagoen plan estrategikoaren arabera: <ul style="list-style-type: none">- Trebakuntza eta enplegua sustatzea.- Kultura, sorkuntza eta berrikuntza.- Mendekotasuna eta desgaitasuna.- Efizientzia, hurbiltasuna eta gizarte errentagarritasuna.- Familia eta haurrak.- Hirugarren sektorea indartzea.		

²⁴ Iturria: Banku fundazioen 2017ko urteko kontuak, plan estrategikoa eta gobernu korporatiboaren urteko txostena.



BBKren gobernu organoak hauek dira:

Presidentea	Sagredo Ormaza, Xavier
Presidenteordea	García Erauzkin, Alberto
Zuzendari nagusia	Martínez Salcedo, Jorge
Idazkaria	Aldazabal Etxebarria, Javier
Izendapenen batzordea	
Presidentea	Zarate Amigorena, Roberto
Presidenteordea	Urquijo Elorriaga, Ana
Bokala	Calvo Sotomayor, Iñigo
Bokala	García Erauzkin, Alberto
Gizarte Ekintzaren batzordea	
Presidentea	Berjón Ayuso, Francisco José
Bokala	De Iturrate Ibarra, Maite
Bokala	López de Larruzea Zarate, Amagoia
Bokala	Ortuondo Larrea, Begoña
Bokala	Pulgarín Romero, José Manuel
Bokala	Zarate Amigorena, Roberto
Inbertsioen batzordea	
Presidentea	Ardanza Fresno, Manuel
Bokala	Berasategi Zabala, Jon
Bokala	Berjón Ayuso, Francisco José
Bokala	Calvo Sotomayor, Iñigo
Bokala	García Erauzkin, Alberto
Auditoria batzordea	
Presidentea	Berasategi Zabala, Jon
Bokala	Ardanza Fresno, Manuel
Bokala	Garagalza Muñoz, Paula
Bokala	Calvo Sotomayor, Iñigo
Bokala	Zarate Amigorena, Roberto
Patronoak	
	GARCÍA ERAUZKIN, Alberto
	ORTUONDO LARREA, Begoña
	ARDANZA FRESNO, Manuel
	BERASATEGI ZABALA, Jon
	BERJÓN AYUSO, Francisco José
	CALVO SOTOMAYOR, Iñigo
	DE ITURRATE IBARRA, Maite
	GARAGALZA MUÑOZ, Paula
	LÓPEZ de LARRUZEA ZARATE, Amagoia
	PULGARIN ROMERO, José Miguel
	SAGREDO ORMAZA, Xabier
	HUTSIK
	URKIJO ELORRIAGA, Ana
	ZARATE AMIGORENA, Roberto
	Hutsik Bizkaiko Foru Aldundian



Jarraian adieraziko dira beste puntu batzuetan izan ez diren edo landu ez diren BBKren GKUTren alderdi nabarmenak:

FUNDAZIOAREN ADMINISTRAZIO EGITURA

Eskumenak

<i>Patronatua</i>	Funtzio delegaezina: Kudeaketa arrunta gainditzen duten edo Babesletzaren baimena behar duten urteko kontuak, aurrekontuak eta ekintzak onartzea.
<i>Inbertsioen batzordea</i>	Inbertsioen batzordearen zeregina da Banku Fundazioak gauzatzen duen inbertsio eta desinbertsio estrategiko eta egonkorrei buruz Patronatuari informatzeaz arduratzea, izan zuzenean edo talde berdineko erakundeen bidez. Halaber, aipatutako inbertsioen bideragarritasun finantzarioari eta horiek Fundazioaren aurrekontu eta plan estrategikoekiko duten egokitasunari buruz ere informatzen ditu.
<i>Auditoria batzordea</i>	a) Patronatua informatzea dagozkion eskumenen arloan bere baitan planteatzen diren gaiei buruz. b) Patronatuari proposatzea kanpoko kontuen auditoreen izendapena, aplikatu daitekeen araudiaren arabera. c) Banku fundazioaren eta bere taldearen, halakorik balego, informazio prozesuen eta barne kontrolerako sistemak ezagutzea. d) Kanpoko kontuen auditoreekin beharrezko erlazioak ezartzea horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruzko informazioa jasotzeko, baita kontuen auditoria prozesuarekin erlazionatutako beste edozeini buruzkoa ere, eta kontuen auditorien legedian eta auditoriaren arau teknikoetan aurreikusitako bestelako jakinarazpenak jasotzeko.

Patronatuaren funtzionamendu arauak

<i>Patronatua eratzea</i>	Bilerak hainbat aretotan egin daitezke, aldi berean, baldin eta ziurtatzen bada ikus-entzunezko edo telefono bidezko baliabideen bidez beren artean denbora errealean komunikatuko direla eta, beraz, ekintzak batasuna izango duela. Kasu honetan, deialdian jasoko da konexio sistema eta, halakorik bada, bileran izateko eta parte hartzeko baliabide teknikoak dauden lekuak. Erabakiak presidentea dagoen tokian hartuko dira.
<i>Bertaratze quoruma</i>	Patronatua baliozko eran eratuko da, kideen erdia gehi bat daudenean edo ordezkatuta daudenean. Patronatuko kideen erdia baino gehiago ez bada joaten deitutako bilerara, bigarren deialdia egin ahal izango da egun baliodun bat pasatu ondoren eta gai zerrenda berdinarekin beste deialdi bat eginda, baldin eta bertaratutako patronoak, gutxienez, Patronatuko kide guztien herena badira.
<i>Gai zerrenda ezartzea</i>	Presidenteak ezarriko du deialdian.
<i>Erabakiak hartzeko araubidea</i>	Erabakiak botoen, bertaratuak eta ordezkatuak, gehiengo bidez hartuko dira, estatutuek edo aplikatu daitekeen araudiak bestelako zerbait ezartzen dutenean izan ezik. Berdinketa gertatzen denean, presidentearen edo bileraren buru denaren botoak kalitate botoa izango du. Kideen bi herenen botoa beharko da fundazioa fusionatzeko, edozein egitura aldaketa egiteko eta deuseztatzeko akordioak egiteko.
<i>Patronoerik eman beharreko informazioa</i>	Bileran eztabaidatuko den guztia.
<i>Patronoek informaziorako sarbidea izateko sistemak</i>	Patronatuaren bilerei buruzko informazio guztia bertako kideei bidaltzen zaie posta elektronikoen bidez aurrez. Halaber, ataria bat dago (intranet), Patronatuko kideen eskura, bileretako dokumentazio guztia eskura dezaten.



Patronatuko bileren maiztasun eta deialdiei buruzko arauak

<i>Maiztasuna</i>	Bilera bat bi hilean behin gutxi gorabehera, horretarako onartutako egutegi batean ezarriak eta horiez gain, behar diren aparteko bilera guztiak. Zehazki, 2017an Patronatuak 7 (zazpi) bilera egin zituen.
<i>Deialdia</i>	Bileren deialdia presidentek egingo du 48 ordu lehenago, gutxienez, kide bakoitzari idatzizko jakinarazpena bidalita, jakinarazpena jaso dela ziurtatzen duen edozein baliabide edo prozeduraren bidez, telematikoak barne. Deialdian bilera egiteko lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai zerrenda ere, eta dagokion dokumentazioa ere bidaliko da. Urgentziazko kasuetan, presidentearen ustez, baliozkoa izango da modua eta epea edozein izanda ere, betiere behar bezala egiaztatzen bada.
<i>Bileren deialdia eskatzeko patronoek dute eskubidea</i>	Ez da beharrezkoa izango aurrez deialdia egitea patrono guztiak presente daudenean eta aho batez erabakitzen dutenean bilera egitea.

Inbertsioen Batzordearen funtzionamendu arauak

Organoa eratzea	Kideen gehiengoak bertaratu behar du.
Bertaratze quoruma	Kideen erdia gehi bat.
Gai zerrenda ezartzea	Batzordeko presidentek ezarriko du deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilaren bidez.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informaziorako sarbidea izateko sistemak	Atari bat dago (intranet) batzordeetako kideek bilera guztietako dokumentazio guztia eskuratzeko.

Auditoria Batzordearen funtzionamendu arauak

Organoa eratzea	Kideen gehiengoak bertaratu behar du.
Bertaratze quoruma	Kideen erdia gehi bat.
Gai zerrenda ezartzea	Batzordeko presidentek ezarriko du deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilaren bidez.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informaziorako sarbidea izateko sistemak	Atari bat dago (intranet) batzordeetako kideek bilera guztietako dokumentazio guztia eskuratzeko.



INBERTSIO POLITIKA KREDITU ERAKUNDE PARTAIDETUAN

<i>Kudeaketa helburuak eta irizpideak</i>	2017an zehar BBK banku fundazioak % 57ko bere partaidetza kuota mantendu du kreditu erakunde partaidetuan (Kutxabank). Hori da bere inbertsio nagusia, bermatzeko, dibidenduen kobrantzaren bidez, BBKren gizarte ekintza mantentzen dela era iraunkor eta jasangarrian. Ez da bestelako inbertsio esanguratsurik proiektatu.
<i>Emaitzen banaketa</i>	BBK banku fundazioak onartu du 2017rako etekinaren (Kutxabanken Administrazio Kontseiluak proposatua) % 50 banatzea. BBK banku fundazioak 2017rako etekinaren (Kutxabanken Administrazio Kontseiluak formulatua) % 50aren dibidendua banatzeko proposamenaren alde botatu du. BBK banku fundazioak Kutxabankek banatutako dibidenduaren % 57 jaso du, eta Gizarte ekintzara eta nahitaezko erreserba funtsera bideratu du.
<i>Akziodunen akordioak</i>	BBK banku fundazioak ez dauka Kutxabanken ezein akziodunekin akordio politikarik. 2011ko ekainaren 30ean Kutxabank sortu zuen Babes Instituzionalaren Sistema (BIS) desagertu egin zen aurrezki kutxak banku fundazio bihurtu zirelako eta horiek erakunde finantzario izateari utzi zirelako. Zehazki, BBK banku fundazio bihurtu zen 2014ko ekainaren 30eko Aurrezki Kutxaren Batzar Nagusiak hala erabakita. Are gehiago, BBK eta Vital banku fundazioek, Kutxabankekin batera, 2015eko martxoaren 24an sinatutako BISen "Amaitze dokumentu" bat egin zuten eta Kutxa Fundazioa desagertze dokumentu horri atxiki zitzaion horrela adierazten zuen berariazko akordio bidez, 2016ko martxoaren 17an bere Patronatuak hala erabakita.
<i>Akordioak hirugarrenekin</i>	Hirugarrenekin egin behar dituen akordioei dagokienez, boto eskubideak era itunduan gauzatuta, kreditu erakunde partaidetuaren kudeaketari buruzko politika komun iraunkor bat gauzatuta edo bertan era esanguratsuan eragiteko helburua duen politika gauzatuta, adierazten da ez dagoela akordiorik hirugarrenekin .

ERAGIKETA LOTUAK

<i>Eragiketak onartzea alderdi lotuekin</i>	Ez dago. Baina, horrelako eragiketak izango balira, horiek onartzeko organo eskuduna Patronatua izango litzateke. Alderdi interesdunak Patronatuari proposatuko lioke eragiketa eta honek onartu egingo luke edo ez luke onartuko.
---	---



BBK fundazioaren **Partaidetza Finantzarioaren Kudeaketa Protokoloak** hau adierazten du:

IZAERA ESTRATEGIKOKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 1) Kutxabank SAn gaur egungo posizioa mantenduko da, hau da, BBK banku fundazioari bankuaren kudeaketa sano eta zuhurrean eragiteko aukera ematen dion posizioa eta 10/2014 Legean, ekainaren 26koan, kreditu erakundeen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenari buruzkoan aurreikusitako partaidetza esanguratsuan araudian eta aplika daitekeen gainerako araudian ezarritako printzipioak zorrozki betetzen dituen.
- 2) Kutxabank SAko partaidetzak eta, ondorioz, partaidetza horretatik lortutako errendimenduak BBKren gizarte ekintza, gaur egungo baldintzetan, mantentzeko behar besteko diru sarrerak bermatzen ditu, baita etorkizunean garatzeko ere, eta hori da erakundearen funtsa.
- 3) Bestalde, banku fundazioak sustatuko du Kutxabanken jarduera finantzarioak desagertutako aurrezki kutxaren balio tradizionalak errespetatzea. Bereziki, bermatuko du Kutxabank gehienbat **txikizkakoa den kreditu erakundea** izatea, zerbitzua eskaintzeko bokazio nabarmenarekin eta, **kasu guztietan, batez ere, partikular, autonomo, enpresa txiki eta ertainei arreta ematera bideratuta egoteko.**
- 4) BBK-k Kutxabanken duen estrategia egokitu egingo du Bankuak Gainbegiratzeko Europako Batzordearen erabakien ondoriozko kapitalaren errekerimendu dinamikoen bilakaerara eta bermatuko du Kutxabanken estrategia merkatuko gizarte ekonomiaren printzipioetan oinarritzea. Printzipio horiek Europar Batasunean eskumena duten erakunde arautzaile eta gainbegiratzailleek ezarrita une bakoitzean indarrean dagoen esparru arauemailerara egokituko dira.
- 5) Lehen aipatutakoaren ildotik, fundazioak zaindu egingo ditu bere jarduera finantzarioan merkataritza kudeaketa zuzen eta pertsonalizatuaren printzipio eta balioak, hau da, desagertutako aurrezki kutxak sortu zenetik, duela ehun urte baino gehiago, zuen eta daukan gizarte ekintzaren oinarrian dauden printzipio eta balioak, hori baita bere kapital handiena eta onena.
- 6) Azkenik, berariaz aipatzen da ez dagoela jarduketa itundurik Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren eta Kutxabank SAren gainerako banku fundazio akziodunen artean.

BANKU FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN ETA KUTXABANK-EN GOBERNU ORGANOEEN ARTEKO ERLAZIOAK

- **BBKren patronatuak eskumena izango du banku fundazioa titularra den Kutxabanken akzioei dagozkien gainerako eskubide politikoaren botoaren zentzua zehazteko eta horiek baliatzeko.**
- **Banku fundazioaren patronatuak eskumena du Kutxabanken kontseilarien izendapena proposatzeko baldin eta horiek izendatzea fundazioari badagokio.**
- **Fundazioak Kutxabanken une bakoitzean duen partaidetzarekiko koherentea den Kutxabankeko kontseilari kopurua izendatuko du eta, ondorioz, gorde egiten du ordezkariak proportzionala baliatzeko eskubidea.**

Patronatuak proposatutako eta Fundazioak izendatutako Kutxabanken kontseilariak une bakoitzean aplika daitekeen legediak eskatzen dituen zintotasun, profesionaltasun, esperientzia eta gobernu onaren baldintzak bete beharko dituzte.

- Adierazi da **BBK banku fundazioan ez dagoela Patronatuko kiderik, aldi berean, Kutxabanken Administrazio Organoko kide denik**, zeren kasu hori berariaz debekatzen du BBK banku fundazioaren gizarte estatutuen 23. artikulua. **Horregatik ez da interes gatazkarik sortuko Patrono karguaren eta Kutxabankeko kontseilari karguaren bateragarritasunetik.**



BBK TALDEAREN ETA KUTXABANK TALDEAREN SOZIETATEEN ARTEKO ERAGIKETAK

- Talde barneko eragiketak edo zerbitzu ematea merkatu baldintzetan gauzatuko dira, horretarako behar diren irizpideak ezarrita, Bilbao Bizkaia Banku Fundazioaren Taldeko sozietateek eta Kutxabank Taldeko sozietateek elkarri ematen dizkioten eta emango dizkioten zerbitzuak aurrez identifikatuta.
- Mekanismoak zehaztu eta aplikatuko dira Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren Sozietateen eta Kutxabank Taldeko Sozietateen arteko informazio fluxua ziurtatzeko; horrela, bete ditzaten kudeaketa errekerimenduak eta arreta emateko dagozkien erregulazailleen aurrean eta legea betetze aldera behar diren betebeharrei.
- Informazio mekanismoak ezarriko dira banku fundazioaren patronatua behar bezala informatua dagoela bermatzeko, une oro, hau da, zintzotasunaren arloko Kutxabanken akziodun izateagatik fundazioari aplikatu dakizkiokeen beste arlo batzuetako betebehar eta eginkizunei buruz informatua dagoela bermatzeko, baita BBK-k izaera hori izateagatik izan ditzakeen interes gatazkei buruz ere.
- Gomendatzea eragiketarik ez egitea BBKren eta Kutxabanken patronoen (edo beren senideen) artean, alegia, bankuak eskaintzen dituen zerbitzu eta produktuak direla eta egin ditzaketen kontratuez haragoko eragiketak, beti merkatuko baldintza egokietan. Eta puntualki horrelako eragiketaren bat badago, Patronatuko kideak Patronatua informatu beharko du eragiketaren ezaugarriei buruz eta informazio hori banku fundazioaren Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean sartu beharko da.

BBK ETA KUTXABANKEN ARTEKO ELKARLANA

Banku fundazioak, Kutxabanken erreferentziazko akzioduna denez, sustatuko du Bankuaren gizarte erantzukizun korporatiboa fundazioaren misio eta balioekin koordinatzea, Kutxabanken eta fundazioaren GEK helburuen artean sinergiak eta efizientziak lortzeko.



Kutxa banku fundazioa

Jarraian, Kutxa banku fundazioaren ezaugarri nagusiak adieraziko dira:

Partaidetza	% 32		
Helburua	Kutxaren helburua izango da Gipuzkoako lurralde historikoko garapen ekonomiko eta soziala eta bere jarduera nagusia gizarte jarduerari arreta ematera eta garatzera bideratuko du, ondarearen kudeaketa egokira eta, ondorioz, banku erakundearen kapitaleko partaidetzaren kudeaketa egokira Kutxak (aurrerantzean, Kutxabank) bere jardueraren zuzeneko jarduera transferitu baitzion, baita bere helburuak garatzean eskuratutako beste batzuk ere.		
Zifra nagusiak	Kontzeptua (<i>milaka euro</i>)	2016	2017
	Aktiboa, guztira	39.134.091	45.153.330
	Ondare garbia	22.751.227	29.088.646
	Ekitaldiko emaitza	12.011.369	6.337.419
Gizarte Ekintzaren plan estrategikoa	<ul style="list-style-type: none">- Kutxak gizarte proiektu jasagarrietan inbertitzen du.- Partaide den proiektuen burua da.- Gipuzkoarentzako intereseko proiektuak sustatu eta babesten ditu.- Gizarte arloko erakunde, elkarte eta boluntario eta militanteen kolektiboetan zentratzen da.- Balio pertsonalak eta sozialak gara daitezela sustatzen du.- Gizartean izaten diren joera eta aldaketak aztertuko dira.		



Kutxaren gobernu organoak hauek dira:

Presidentea	Beraza Olabarrieta, Manuel
Presidenteordea	Echenique González, Guillermo
Zuzendari nagusia	Ruiz González, Carlos
Idazkaria	García de Albizu Garate, Natalia
Idazkariordea	Azpiroz Herrería, Emma
Izendapenen eta ordainsarien batzardea	
Presidentea	Tamayo Salaberria, Carlos
Bokala	Echenique González, Guillermo
Bokala	García Santa Cruz, Francisco Borja
Bokala	Tejada Manso de Zuñiga, Blanca
Gizarte Ekintzaren batzardea	
Presidentea	Beraza Olabarrieta, Manuel
Bokala	Aguirrezabala Mundiñano, Miren Karmele
Bokala	Aulestia Urrutia, Koldo
Bokala	Campos Illarramendi, Antonio
Bokala	Tejada Manso de Zuñiga, Blanca
Inbertsioen batzardea	
Presidentea	Beraza Olabarrieta, Manuel
Bokala	Echenique González, Guillermo
Bokala	García Santa Cruz, Francisco Borja
Bokala	Tejada Manso de Zuñiga, Blanca
Auditoria eta Araudi Betetzearen Batzardea	
Presidentea	Tamayo Salaberria, Carlos
Bokala	Echenique González, Guillermo
Bokala	García Santa Cruz, Francisco Borja
Bokala	Tejada Manso de Zuñiga, Blanca
Patronoak	
	AULESTIA URRUTIA KOLDO
	AGUIRREZABALA MUNDIÑANO, MIREN KARMELE
	AULESTIA URRUTIA KOLDO
	BERAZA OLABARRIETA, MANUEL
	CAMPOS ILLARRAMENDI , ANTONIO
	ECHENIQUE GONZALEZ, GUILLERMO
	GARCIA SANTA CRUZ, FRANCISCO BORJA
	TAMAYO SALABERRIA, CARLOS
	TEJADA MANSO DE ZUÑIGA, BLANCA
	Izendatu gabe Donostiako Udalean



Jarraian adieraziko dira beste puntu batzuetan izan ez diren edo landu ez diren GKUTren alderdi nabarmenak:

FUNDAZIOAREN ADMINISTRAZIO EGITURA

Eskumenak

Patronatua

Funtzio delegaezina: Estatutuen 10. puntuak ezartzen du Patronatua dela Fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkari organo nagusia; izan ere, berari dagokio fundatze helburuak egiteko behar diren ahalmenak eta eskumenak baliatzea, Estatutuetan eta ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.

Inbertsioen batzordea

Inbertsioen batzordearen erregelamenduko 3. artikulua arabera, hauek izango dira batzordearen funtzioak:
Banku Fundazioak proposatzen duen inbertsio eta desinbertsio esanguratsuei buruz Patronatuari informatzea, izan zuzenean edo talde berdineko erakundeen bidez. Halaber, aipatutako inbertsioen bideragarritasun finantzarioari eta horiek Fundazioaren aurrekontu eta plan estrategikoei egiten duten egokitasunari buruz ere informatzen du.- Patronatua informatzea egindako inbertsioen bilakaerari buruz, baita horiek une bakoitzean indarrean dauden plan estrategikotara egokitu diren aztertzea ere. Era berean, Patronatuaren presidentek batzordearen mende jarri ahal izango ditu, aurreikusitako betekizunak bildu gabe, Fundazioarentzat estrategikotzat jotzen dituen inbertsioak.

Auditoria eta kontrolerako batzordea

a) Bermatuko da, orokorrean, zorrozki betetzen direla Estatutu hauek, gobernu korporatiboaren arauak, interes gatazkaren arauak, barne erregelamenduak eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak.
b) Interes gatazkei buruzko txosten bat egitea, baita estatutu hauen eta erregelamenduen interpretazioarekin erlazionatuta Patronatuak planteatu diezazkiokeen gai guztiei buruzkoak ere.
c) Fundazioaren kanpoko auditorea izendatzeko Patronatuari proposamena egitea, baita, halakorik bada, bere kontratazio baldintzak, agindu profesionalaren irismena eta izendapenaren baliogabetzea ere.
d) Aldizka erlazioak mantentzea kanpoko kontuen auditoreekin informazioa jasotzeko auditoria planei eta betearazte emaitzei buruz, egiaztatuz zuzendaritzak kontuan dituela bere gomendioak eta, era berean, horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien buruzko informazioa jasotzeko, baita kontuen auditoria prozesuarekin erlazionatutako beste edozeini buruzkoa ere, kontuen auditorien legedian eta auditoriaren arau teknikoetan aurreikusitako bestelako jakinarazpenen bidez.
e) Patronatua informatzea batzorde honen eskumenen arloan planteatzen diren gaien inguruan.

Baita batzordearen 3. artikuluan zehazten direnen inguruan ere. Hauek dira:

- Patronatua informatzea Auditoria eta kontrolerako batzordearen eskumenekoak diren arloetan planteatzen diren gaien buruz eta, bereziki, auditoriaren emaitzari buruz, eta azalduko da nola auditoriak lagundu dion informazio finantzarioaren osotasunari eta Auditoria eta kontrolaren batzordeak prozesu honetan izan duen funtzioari.
- Gainbegiratzea nahitaezko informazio finantzarioa landu eta aurkezteko prozesua eta Patronatuari gomendioak edo proposamenak aurkeztea, bere osotasuna babesteko.
- Fundazioaren barneko kontrolaren efikazia gainbegiratzea, baita kontu auditorearekin eztabaidatzea ere auditoretza egitean barneko kontrol sisteman detektatutako ahultasun esanguratsuak, hori guztia bere



independentzia urratu gabe. Horretarako, eta halakorik bada, Patronatuari gomendioak edo proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote, baita segimendurako dagokion epea ere.

d) Patronatuari aurkeztea kontu auditorea aukeratu, izendatu, berriz aukeratu eta ordezkatzeko proposamenak. Aukeratzeko prozesuaren ardua izango du, 537/2014 Erregelamenduaren (EB), apirilaren 16koaren, 16. artikulua, 2,3 eta 5. apartatuetan eta 17.5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, hori kontratatze baldintzak aurkeztea eta aldizka bertatik auditoria eta betearazpen planari buruzko informazioa jasotzea, bere funtzioetan aritzeko bere independentzia zaintzeaz gain.

e) Kanpoko auditorearen erlazioak ezartzea bere independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei buruz, Auditoria eta kontrolerako batzordeak azter dezan, eta kontu auditoriaren prozesuarekin erlazionatutako beste edozein eta, hala dagokionean, debekatutakoez bestelako zerbitzuak baimentzea, 537/2014 Erregelamenduaren, apirilaren 16koaren 5. artikuluko 4. apartatua eta 6.2.b) ezarritako baldintzetan, eta 22/2015 Legearen, uztailaren 20koaren, kontu auditoriari buruzkoaren, independentzia araubideari buruzkoaren, I. titulua IV. kapituluko 3. sekzioan aurreikusitako baldintzetan, baita kontuen auditoretzaren legedian eta auditoretza arauetan aurreikusitako bestelako jakinarazpenak ere. Nolanahi ere, kanpoko auditoreek urtean behin erakundearekiko edo horrekin zuzenean edo zeharka lotutako erakundeekiko beren independentziaren deklarazioa jasoko dute, baita eskainitako edozein eratako zerbitzu osagarrien informazio zehatza eta indibidualizatua ere eta akordio honi atxikitako kanpoko auditoreak edo horri lotutako pertsona edo erakundeek erakunde horietatik jasotako ordainsariak, kontu auditoriaren jarduera arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

f) Patronatuak Auditoria eta kontrolerako batzordeari ezartzen dion beste edozein funtzio eta eskumen, baita aplikatu daitezkeen eta indarrean dagoen araudian ezarritakoak ere.



Patronatuaren funtzionamendu arauak

<i>Patronatua eratzea</i>	Estatutuen 26. artikulua adierazten du Patronatua baliozko eran osatuta egongo dela, bileran hasten denean kideen erdia gehi bat badaude edo ordezkatura badaude. Patronatuko kideak beste patrono batzuei eman ahal izango die soilik ordezkapena eta ordezkapena idatziz eman beharko da eta izaera bereziarekin Patronatuaren bilera bakoitzean.
<i>Berlaratze quoruma</i>	Deitutako bileran ez badira agertzen Patronatuko kideen erdia baino gehiago, bigarren deialdian egin ahal izango da gai zerrenda berdinarekin, betiere berlaratutako edo ordezkaturako patronoak gutxienez Patronatuko kide guztien heren bat badira eta, gutxienez, hirurogei (60) minutuko aldea badago lehenengoaren eta bigarrenaren artean.
<i>Gai zerrenda ezartzea</i>	Estatutuen 20. artikulua ezartzen du presidenteari dagokiola presidente den organoen bilerak deitzea, eztabaidatu behar diren gaiak eta horien ordena zehaztea, bileren burua izatea eta eztabaidak eta debeteak zuzendu eta antolatzea, erabakiak botatu daitezela agintzea eta botazioen emaitza adieraztea, baita aktak berrikustea ere. Araubidea.
<i>Erabakiak hartzeko araubidea</i>	Estatutuen 26. artikulua adierazten du Patronatuak erabakiak hartuko dituela berlaratutako edo ordezkaturako gehiengo soilaren aldeko botoarekin, salbu eta estatutu hauetan edo aplikatu daitezkeen legedian gehiengo berezi bat eskatzen bada zenbait erabaki hartzeko. Gehiengo soilak izango dira akordioaren aurkako botoak baino gehiago izatea aldeko botoak, abstentzioak eta boto zuriak zenbatu gabe. Presidenteak edo bileraren buruak kalitate botoa izango du berdinketa gertatzen denean. Bere kideen bi herenen botoa beharko da Fundazioa fusioatzeko, edozein egitura aldaketa egiteko eta deuseztatzeak akordioak egiteko, baita Kutxabanken edozein inbertsio/desinbertsio egiteko eta estatutu hauek aldatzeko ere. Aurrekoa gorabehera, aginduzko arau batek ezarriko balu apartatu honetan aipatzen diren akordioak hartzea inplikatzeko duen edozein betebeharrak, akordioak arau horretan adierazitako gehiengoekin hartuko dira eta, arauak ez bada espezifikoki aurreikusten, gehiengo soilarekin. Botazioak normalean izendunak izango dira, salbu eta berlaratu edo ordezkaturako patrono gehienek erabakitzen badute isilpean egitea. Patronatuaren deliberazioak eta akordioak isilpekoak izango dira, alde batera utzi gabe eskumena duten Administrazio Publikoek edo beste organo eta agintaritzek informazioa emateko betebeharrak.
<i>Patronoek eman beharreko informazioa</i>	Estatutuen 25. artikuluan adierazten da, Patronatuak bilerak posta elektronikoaren bidez edo jaso dela ziurtatzen duen beste edozein baliabideren bidez deituko dituela eta bertan bileraren lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai zerrenda ere, eta dagokion dokumentazioa erantsiko da.
<i>Patronoek informaziorako sarbidea izateko sistemak</i>	Posta elektronikoak eta webgune espezifikoak.



Patronatuko bileren maiztasun eta deialdiei buruzko arauak

<i>Maiztasuna</i>	Estatutuen 24. artikulua aurreikusten du Patronatuak bere funtzioak era efikazean gauzatzeko behar den maiztasunarekin egingo dituela bilera arruntak eta, gutxienez, hiru hilean behin, presidenteak aurrez deialdia eginda.
<i>Deialdia</i>	Estatutuen 25. artikulua arabera, Patronatuko presidenteari dagokio Patronatuko bileren deialdia egitea. Bilera arruntak gutxienez lau (4) egun baliodun lehenago deitu beharko dira. Aparteko bileren kasuan, gutxienez, hogeita lau (24) ordu lehenago deitzea baliozkoa izango da, alde batera utzi gabe bilera unibertsalei buruz aurreko artikuluan ezarritakoa.
<i>Bileren deialdia eskatzeko patronoek dute eskubidea</i>	Estatutuen 24. artikulua adierazten du Patronatua aparteko eran bildu ahal izango dela baldin eta beharrezkotzat jotzen badu presidenteak, edo bere ordezkioak, baita kideen herenak idatziz eskatzen duenean ere, eta zehatz-mehatz zehaztuz landu beharreko gaiak. Deialdia egiteko betebeharrak hau soilik eskatu ahal izango da, presidentearen ustez urgentzia egiaztatua dagoenean eta bilera Patronatuaren eskumeneko gai garrantzitsuei buruzkoa denean. Deialdia eskatzen denean, Patronatuko presidenteak aparteko bilera, gehienez, lau (4) egun balioduneko epean deituko du, deialditik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita lau (24) eta hirurogeita hamabi (72) orduen artean egiteko. Deialdian eskaera osatzen duten gaien eta, presidentearen ustez, urgentziazkoak diren eta Patronatuaren eskumeneko gai garrantzitsuei buruzkoak diren gaien gai zerrenda egongo da.

Inbertsioen Batzordearen funtzionamendu arauak

Organoa eratzea	Inbertsioen batzordea baliozko eran eratuko da, gutxienez, kideen gehiengo bertaratuta, pertsonalki edo ordezkioekin.
Bertaratze quoruma	
Gai zerrenda ezartzea	Inbertsio batzordeko presidenteak eta baita batzordeko kideen heren batek eskatuta ere, bilerak edozein baliabideren bidez deituko ditu (fax, posta elektronikoa), baldin eta jaso dela ziurtatzen badute, telematikoa barne, eta bileraren gai zerrenda erantsiko du.
Erabakiak hartzeko araubidea	Inbertsioen batzordearen erabakiak bertaratu eta ordezkututako kideen botoen gehiengoarekin hartuko dira, eta presidenteak kalitate botoa izango du berdinketa gertatzen denean.
Kideei eman beharreko informazioa	Deialdiarekin batera bidaltzen da.
Kideek informaziorako sarbidea izateko sistemak	Posta elektronikoa eta patronoentzat mugatutako sarbidea duen plataforma.



Auditoria Batzordearen funtzionamendu arauak

Organoa eratzea	Auditoria eta kontrolerako batzordea baliozko eran eratuko da, gutxienez, kideen gehiengoa bertaratuta, pertsonalki edo ordezkoeekin.
Bertaratze quoruma	
Gai zerrenda ezartzea	Auditoria eta kontrolerako batzordeko presidentek eta baita batzordeko kideen heren batek eskatuta ere, bilerak edozein baliabideren bidez deituko ditu (fax, posta elektronikoa), baldin eta jaso dela ziurtatzen badute, telematikoak barne, eta bileraren gai zerrenda erantsiko du.
Erabakiak hartzeko araubidea	Auditoria eta kontrolerako batzordearen erabakiak bertaratu eta ordezkaturako kideen botoen gehiagoarekin hartuko dira, eta presidentek kalitate botoa izango du berdinketa gertatzen denean.
Kideei eman beharreko informazioa	Deialdiarekin batera bidaltzen da.
Kideek informaziorako sarbidea izateko sistemak	Posta elektronikoa eta patronoentzat mugatutako sarbidea duen plataforma.

INBERTSIO POLITIKA KREDITU ERAKUNDE PARTAIDETUAN

<i>Kudeaketa helburuak eta irizpideak</i>	Dibidenduak banatzeari buruzko proposamenak banku fundazioak egingo ditu kapital errekerimenduei buruz kreditu erakundeei aplika dakiekeen indarreko legediaren arabera eta erakunde gainbegiratzailiek egindako oharren edo xedapenen arabera; horrela, Kutxabanken berezko baliabideak indartzen lagunduko da, baina kontuan hartuta, halaber, banatutako kopuruarekin banku fundazioak gizarte ekintza gauzatu ahal izango duela, une bakoitzean ezartzen diren proiektu eta jardueren sustapenean parte hartuz.
<i>Emaitzen banaketa</i>	A).- Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioak Kutxabank, SAREN 2017ko maiatzaren 3ko Akziodunen Batzar Nagusi Arrunt eta Unibertsalean 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko emaitza Administrazio Kontseiluak atal hauetara bideratzeko egindako proposamenaren alde botatu du: -Borondatezko erreserbak: 26.700 mila euro. -Konturako dibidendua: 95.154 mila euro (2016ko azaroaren 25eko bileran adostutako banaketa. -Dibidendu osagarria: 26.700 mila euro. B).- Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioak Kutxabank, SAREN 2017ko abenduaren 28ko Akziodunen Aparteko Batzarrean 2017ko ekitaldiaren konturako 115.422 euroko dibidendu bat banatzearen alde botatu du.
<i>Akziodunen akordioak</i>	Ez da aplikatu.
<i>Akordioak hirugarrenekin</i>	Ez da aplikatu.



ERAGIKETA LOTUAK

Eragiketak onartzea alderdi lotuekin

Estatutuen 46. artikulua araberako, Patronatuak kideek idazkariari jakinarazi beharko diote fundazioarekiko eta KUTXABANKEKIKO interes gatazkako edozein egoera, baldin eta pertsonalki edo pertsona lotuei eragiten badie, eta gatazka egoera horiek hartzen dituzten akordio edo erabakien inguruko edozein jarduketa egiteari uko egingo diote. Ondorio horietarako, interes gatazka egongo da talka egiten dutenean, zuzenean edo zeharka, patronoen interes pertsonalak eta fundazioaren interesek. Patronoen interesa egongo da gaiak berari edo berari lotutako pertsona bati eragiten dionean.

Gaiak eragiten dien pertsonen fundazioarekin eragiketak egin ditzakete soilik behar beste egiaztatzen bada hori egin behar dela eta fundazioaren interesak patronoen edo pareko pertsonen interes partikularrei gailentzen zaizkiela.

Interes gatazka bat duten eragiketak Patronatuak onartuko ditu eta, halakorik balego, Auditoria eta kontrolerako batzordeak aurretiaz aldeko txostena eginda, Patronatuak kideen gehiengo osoarekin onartuko dira, fundazioarekin interes gatazkengatik botatu ezin duten kideak zenbatu gabe. Bileraren aktan patronoen botoaren zentzua jaso beharko da. Onarpen akordio hori berehala jakinaraziko zaio babesletzari.

Kutxabankekin zerbitzu finantzarioak eskaintzetik eratorritako eragiketei aplika dakiekeen araubideari dagokionez, kudeaketa protokoloan aurreikusia, hau ezartzen du: Zerbitzu finantzarioak (besteak beste, epe luzerako aktibo produktuak, Fundazioaren eta Kutxabanken arteko kreditu, abal, berme edo antzekoen eragiketak) eskaintzetik eratorritako eragiketei dagokienez, fundazioaren patronatuaren aurretiazko akordioa beharko da.

Eragiketa lotuen kasuan, apartatu honetan ezarritakoa betez Patronatuak onartu dituenak, patronatuak segimendua eta kontrola egingo du. Ondorio horietarako, Fundazioaren Zuzendaritza Nagusiak eragiketa bakoitzaren betearazpen eta garapenari buruz informatuko du; halaber, urteko kontuen memorian eragiketa horiei buruzko eta ekitaldi amaieran beren egoerari buruzko informazioa jasoko da eta, era berean, horiei buruzko informazioa egongo da Gobernu Korporatiboaren txostenean.

Aurreko puntuan aurreikusitakoa gorabehera, ez da beharko patronatuaren aurretiazko baimena, soilik banku fundazioak Kutxabank, SArekin kontratatu nahi dituen eragiketak aktiboaren eragiketak badira eta hiru baldintza hauek betetzen badituzte:

- Kontratuaren formalizatzea zeinen baldintzak estandarizatuta egongo diren eta ohiko eran aplikatuko zaizkien Kutxabank, SAren bezeroei produktu edo zerbitzuen kontratazioan.

- Oro har ezarritako prezio edo tarifetan egitea edo, ez dagoenean tarifarik ezarrita, merkatuko ohiko baldintzetan egitea, antzeko ezaugarriak dituzten bezeroekin izandako merkataritza erlazioei aplikatu zaizkien antzekoekin, eta

- Horien zenbatekoa ez izatea 200.000 eurotik gorakoa.



Kutxa fundazioaren **Partaidetza Finantzarioaren Kudeaketa Protokoloak** hau adierazten du:

IZAERA ESTRATEGIKOKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Banku fundazioak, Kutxabanken duen partaidetzaren bidez, bermatuko du erakundeko jarduera finantzarioaren kudeaketa kongruentea izatea Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren bilakaera historikoarekiko, baita Kutxabankek lider ukalezina izaten jarrai dezan bere jarduera tradizionalki garatzen duen lurraldeetan. Era berean, banku fundazioak sustatuko du Kutxabanken jarduera finantzarioaren kudeaketa **gehienbat txikizkako den tokiko banku eremuan** zentratzeko; horrela, eskalako ekonomiak eta etekin jasangarri bat lortzeko. Kasu guztietan sustatuko den **bezeroekiko kudeaketa hurbiltasun, konfiantza eta partikular, autonomo eta enpresa txiki eta ertainekin epe luzerako erlazioan oinarrituko da**. Azkenik, Kuntxabankeko partaidetzak banku fundazioari aukera emango dio bere fundazio helburuetarako eta gizarte ekintza era egokian garatzeko errendimendu ekonomikoak lortzeko.

Aurrekoarekin bat, Kutxabankek bere jarduera finantzarioa gauzatzean, banku fundazioak historikoki izan dituen kaudimen eta errentagarritasun printzipioak mantentzen direla bermatuko da.

Kutxabanken duen partaidetzak banku fundazioarentzako eta bere gizarte ekintzaren garapenerako dituen abantaileri dagokienez, beste inbertsio aukera batzuen aurrean, alderdi hauek sortzen dituzte:

- (i) Banku fundazioaren "Gizarte ekintzaren" jarduerak zabaltzea eta sustatzea sukurtsalen sarearen bidez eta, halakorik bada, Kutxabanken beste baliabide material batzuen bidez; eta
- (ii) Kutxabanken banku fundazioaren gizarte jardueren garrantzia azpimarratzen laguntzen duten sinergiak sortzea.

Dibidenduak banatzeari dagokionez aplikatuko den politika.

Dibidenduak banatzeari buruzko proposamenak banku fundazioak egingo ditu kapital errekerimenduei buruz kreditu erakundeei aplika dakiekeen indarreko legediaren arabera eta erakunde gainbegiratzailak egindako oharren edo xedapenen arabera; horrela, Kutxabanken berezko baliabideak indartzen lagunduko da, baina kontuan hartuta, halaber, banatutako kopuruarekin banku fundazioak gizarte ekintza gauzatu ahal izango duela, une bakoitzean ezartzen diren proiektu eta jardueren sustapenean parte hartuz.

Berariaz aipatuko da ez dela jarduketa itundua gauzatu kutxen artean.

2011ko ekainaren 30ean Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastian Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak (aurrerantzean, "Kutxa"), Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahietxeak (aurrerantzean, "BBK") eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava-Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxak (aurrerantzean, "Vital") integrazio kontratu bat sinatu zuten egun horretan bertan jakitera eman zena Bilboko notario Vicente María del Arenal Otero jaunaren aurrean bere protokolo 972 zenbakiarekin. Kontratu hori gauzatzeko, 2011ko abenduaren 22an Kutxa, BBK eta Vitalek Kutxabanki eman zioten bakoitzaren negozio finantzarioa. Horretarako, banku negozioak bereizteko eskritura bana formalizatu ziren horiek Kutxabank, SA integratzeko. Halere, kudeaketa protokolo hau igorritako egunean, integrazio akordioak ez du indarrean jarraitzen eta Kutxabanken ez dago Kutxa, BBK eta Vitalen jarduketa itundurik.



BANKU FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN ETA KUTXABANKEN GOBERNU ORGANOEEN ARTEKO ERLAZIOAK

Banku fundazioaren patronatuaren eta Kutxabanken gobernu organoen arteko erlazioan eta, bereziki, banku fundazioak Kutxabanken dagozkion kontseilariak aukeratzean, besteak beste, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

(i) alde batera utzi gabe Kutxabanken gaur egungo Administrazio Kontseilua, etorkizunean, banku fundazioak Kutxabanken kontseilari kopurua proposatuko du. Kopuru hori banku fundazioak une bakoitzean Kutxabanken duen partaidetzarekiko proportzionala izango da eta, ondorioz, gorde egiten du ordezkaritza proportzionala baliatzeko eskubidea.

(ii) Banku fundazioaren patronatuak eskumena du Kutxabanken kontseilarien izendapena proposatzeko, baldin eta horiek izendatzea banku fundazioari badagokio.

26/2013 Legearen 43.1.b) eta 3.2. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera eta Kutxabanken Gizarte Estatutuaren 25. artikulua arabera, patronatuak proposatutako Kutxabanken kontseilariak bete egin beharko dituzte une bakoitzean aplika daitezkeen legedian eta Kutxabanken Gizarte Estatutuaren eta Barne Erregelamenduetan ezarritako zintotasun, esperientzia eta bateraezintasunaren baldintzak. Era berean, kontuan izango dira agintari eta aditu nazional edo komunitarioek arlo honi buruz emandako gomendioak eta proposamenak, baldin eta kreditu erakundeei aplikatu beharrekoak badira.

26/2013 Legearen 40. artikulua 3. epigrafean aurreikusitakoaren arabera, Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioko ezin kidek ezin du Kutxabanken kontseilari izan; beraz, ezin da aplikatu karguen bateragarritasunetik eratorritako interes gatazkak prebenitzeko mekanismo espezifikorik.

Banku fundazioa, 26/2013 Legearen aurreikusitakoaren arabera (eta, bereziki, bertako 44. artikulua arabera), Kutxabanken finantza eta kontabilitate informaziorako sarbidea nahitaez betetzeko betebeharren mende dago.

Banku fundazioa, gainera eta 26/2013 Legearen 46. artikulua arabera, Espainiako Bankuak gainbegiratu du. Gainbegiratzeko funtzio hauek gauzatzean, Espainiako Bankuak banku fundazioari informazioa errekeritu ahal izango dio zeinen erantzunak banku fundazioari eskatzen badiot Kutxabanken informaziorako sarbidea izatea.

Banku fundazioak eta Kutxabankek plangintza eta kudeaketa kontrolerako funtzioak gauzatu ahal izateko eta erakunde arautu gisa beren betebeharrak betetzeko, erakunde bakoitzak besteari, eskuragarritasunaren baitan, behar den informazioa eman beharko dio beste erakundeak bere lege betebeharrak bete ditzan, besteak beste, hauek:

(i) egoera finantzarioak prestatzea;

(ii) 26/2013 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako plan finantzarioa prestatzeko betebeharra betetzea

(iii) Espainiako Bankuari, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta beste agintaritza gainbegiratzailerak batzuei informazioa emateko betebeharrak betetzea;

(iv) bere baliabide, inbertsio koefiziente eta kaudimen marjinaren segimendu zehatza egitea;

(v) arriskuak aztertzea;

(vi) erakunde partaidetuak egoera makroekonomiko desberdinetan beharko lituzkeen baliabide propioen beharrei buruzko zenbatespenak egitea;

(vii) alderdi fiskalak aztertzea eta segimendua egitea;

(viii) beste edozein neurri, Espainiako Bankuaren ustez, beharrezkotzat jotzen dena Kutxabanken bermatzeko kudeaketa sano eta zuhurra eta aplika daitezkeen antolamendu eta diziplina arauak betetzeko gaitasuna; eta

(ix) aurreko neurriak osatzeko beste edozein neurri, betiere legez eskatzen badute agintaritza

gainbegiratzailerak edo eskumena duen beste edozein erakunde arautzailek. Era berean, Kutxabankek banku fundazioaren eskura jarri beharko du behar den informazio guztia banku fundazioak gaur egungo eta etorkizuneko kaudimen arauditik eratorritako betebeharrak bete ahal izateko.

Klausula honek adierazten duen informazioari dagokionez:

(i) informazioa bildu den helburuetarako erabiliko da soilik;

(ii) neurriak ezarri beharko dira banku fundazioari eta Kutxabanki buruzko "informazio pribilegiatua", kasuaren arabera, bertako sailen artean bana dadila saihesteko; beraz, informazioa ezinbestekoa diren sail eta pertsona jakin batzuetara (baita, aplikatzeko modukoa denean, kanpoko aholkularietara ere) mugatuko da; eta

(iii) segurtasun neurriak ezarri beharko dira informazioa zaindu, artxibatu, eskuratu, erreproduzitu eta banatzeko. Hala banku fundazioak nola Kutxabankek behar diren neurriak ezarri beharko dituzte informazio konpromisoak era arduratsuan betetzeko; horretarako, informazio fluxu hizpatuetarako aukera ematen duten baliabideak ezarriko dira, kasu guztietan konfidentzialtasun konpromisoak errespetatuz.



KUTXA ETA KUTXABANK TALDEAREN SOZIETATEEN ARTEKO ERAGIKETAK

- Koordinazio eta gardentasun egokia lortzeko erlazio esparru bat ezarriko da helburu honekin, batetik, (i) banku fundazioaren eta bere erakunde lotuen eta Kutxabanken arteko eragiketak egiteko irizpide orokorrak arautzea eta interes gatazkak agertzea eragozteko eta horiek arautzeko aukera ematen duten mekanismoak ezartzea eta, bestetik, (ii) Kutxabanken banku fundazio akzioduna izateatik eratorritako interes gatazkak agertzea saihestuko dute horiek guztiek.

- Erlazio esparru hau parametro hauen arabera artikulatuko da:

(i) irizpide orokorrak ezarriko dira merkatu baldintzetan eragiketak egiteko edo zerbitzuak eskaintzeko, baita banku fundazioak Kutxabanki eskaintzen dizkion eta eskainiko dizkion eta, aldi berean, Kutxabankek banku fundazioari eskaintzen dizkion edo eskainiko dizkion zerbitzuak identifikatzeko ere;

(ii) mekanismoak zehaztuko dira banku fundazioaren eta Kutxabanken artean behar den informazioa trukatzeko banku fundazioaren gizarte jardueren garrantzia Kutxabanken bezeroen artean azpimarratzen duten sinergiak sortzeko eta arautzaileen aurrean errekerimendu eta betebeharrak betetzeko eta, bereziki, banku fundazioak 26/2013 Legean eta lege hori garatzeko araudian aurreikusitako betebeharrak bete ahal izateko;

(iii) informazio mekanismoak ezarriko dira baldin eta bermatzen badute banku fundazioaren patronatua behar bezala informatuta egongo dela, une oro, banku fundazioak Kutxabanken akziodun gisa leialtasun arloan aplikatu dakizkiokeen betebeharrak eta eginkizunen inguruan, baita banku fundazioa Kutxabanken akzioduna izateagatik izan ditzakeen ustezko interes gatazken inguruan ere; eta

(iv) Kutxabank aipatzen denean ulertuko da Kutxabank Taldea osatzen duten sozietateak barnean sartzen direla, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

KUTXA ETA KUTXABANKEN ARTEKO ELKARLANA

Banku fundazioaren eta Kutxabanken artean zerbitzuak emateko bi arlo handi daude:

(i) Kutxabankek banku fundazioari eta horren mendeko erakundeei banku zerbitzuak eta finantzarioak eskaintzea. Zehazki eta, besteak beste, eta salbuespenez, finantzazioa ematea, kreditu, mailegu edo antzeko eragiketen bidez Kutxabanken arrisku politiken esparruan; eta

(ii) Kutxabankek banku fundazioari hainbat zerbitzu eskaintzea, eta alderantziz. Azalpen moduan baina mugatzailean, zerbitzuak hauek dira: alokairu, higiezinaren kudeaketa eta azpiegituren zerbitzuak; administrazio eta aholkularitza zerbitzuak; informazio sistemen garapena, mantentzea eta eragiketa (jabetza intelektual eta industrialaren eskubideen lagapen edo lizentziaren beharrezko aurreikuspenak barne).

Nolanahi ere banku fundazioaren eta Kutxabanken artean eskaintzen diren zerbitzuak beti idatziz jasoko dira eta, alde batera utzi gabe kontratu partikular bakoitzean, printzipio orokor hauek arautuko dituzte:

(i) gardentasuna izatea eta zerbitzuak merkatuko baldintzetan eskaintzea, izan zuzenean izan horretarako garai egokian azpikontratatu hiru garrenen bidez;

(ii) tratu lehenetsua izatea, merkatuan eragiketa edo zerbitzu horretarako eskaintzen ari diren baldintza onenak alderdiek elkarri une oro eskaintzeko konpromisoak zehaztua;

(iii) alderdiek zerbitzuak ahalik eta ardura handienarekin eta beren eskuetan dauden baliabide guztiekin eskaintzeko konpromisoa hartzea; eta

(iv) alderdiek konpromisoa izatea zerbitzu horiek eskaintzeagatik eskura duten informazioaren konfidentzialtasuna mantentzeko eta ez zabaltzeko, salbu eta agintaritza judizialak, arautzailea eta/edo legeak eskatzen badu.



Vital banku fundazioa

Jarraian, Vital banku fundazioaren ezaugarri nagusiak adieraziko dira:

Partaidetza	% 11		
Helburua	Gizarte helburua dauka eta bere jarduera nagusia Gizarte Ekintzari arreta ematera eta garatzera eta ondarea eta banku erakundean duen partaidetza (izan ere, "Caja Vital Kutxak" bere jarduera finantzarioaren zuzeneko jarduera transferitu zion) era egokian kudeatzera bideratuko du.		
Zifra nagusiak	Kontzeptua (<i>milaka euro</i>)	2016	2017
	Aktiboa, guztira	560.455	565.982
	Ondare garbia	559.748	564.586
	Ekitaldiko emaitza	1.896	4.838
Gizarte Ekintzaren plan estrategikoa	<ol style="list-style-type: none">1.- Sustatzea Fundación Vital Fundazioa marka.2.- Sustatzea proiektu bultzatzaile bat Arabako kuadrilletarako.3.- Prestakuntza babestea enplegurako eta laneratzeko.4.- Indartzea gure jardueraren gizarte izaera.5.- Ekintzailtza, ikerketa eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea Arabako sektore gaztean.6.- Prestakuntzarako gure babesa mantentzean balioen hezkuntza indartuz.7.- Arabako kultura ehunari laguntzea eta guztiontzako kirola sustatzea.8.- Arabako jaiotza tasari eta gure ongizate sistemari buruzko gogoeta estrategikoaren buruz izatea.9.- Topaketak eta konferentziak antolatzea, maila handiko unibertsitate tesiak zabaltzea.10.- Ingurumenarekiko eta Arabako ondare kulturalarekiko konpromiso erreferentea izatea.		



Vitalen gobernu organoak hauek dira:

Presidentea	Urresti García, Jon
Presidenteordea	Raposo Bande, Fernando
Zuzendari nagusia	Echebarria Ajuria Gordobil, Francisco Javier Malax
Idazkaria	Murua Etxebarria, Javier
Idazkariordea	x
Izendapenen eta ordainsarien batzordea	
Presidentea	Abarca, Jose Antonio
Bokala	Orrtiz de Urbina, Esteban
Bokala	Recio Álvarez, Iñigo Vela
Bokala	Solana Rodríguez, Daniel
Gizarte Ekintzaren batzordea	
Presidentea	Urresti García, Jon
Presidenteordea	Raposo Bande, Fernando
Bokala	Aranguiz Mingueza, Fernando
Bokala	Abarca Cañadas, Jose Antonio
Bokala	De Oraa Oleaga, Pablo
Inbertsioen batzordea	
Presidentea	Abarca, Jose Antonio
Bokala	Orrtiz de Urbina, Esteban
Bokala	Recio Álvarez, Iñigo Vela
Bokala	Solana Rodríguez, Daniel
Auditoria eta Araudi Betetzearen Batzordea	
Presidentea	Roth Alcarraga, Alberto
Bokala	Mtz. De Soria Fernández, Eduardo
Bokala	Recio Álvarez, Iñigo Vela
Bokala	Eguren Zendoia, Koldo
Patronoak	
	(*) LUIS RAMÓN ARRIETA DURANA
	JON ALDECOA OLAÑETA
	JON URRESTI GARCIA
	DANIEL SOLANA ALONSO
	IÑIGO VELA RECIO ALVAREZ
	FERNANDO ARANGUIZ MINGUEZA
	ALBERTO ROTH AZCARRAGA
	MAITE SAN SATURNINO PECIÑA
	JOSE ANTONIO ABARCA CAÑADAS
	MONICA ARBAIZA BEITIA
	ESTEBAN ORTIZ DE URBINA DIAZ
	FERNANDO RAPOSO BANDE
	PABLO DE ORAA OLEAGA
	KOLDO EGUREN ZENDOIA
	EDUARDO MARTINEZ DE SORIA FERNANDEZ



Jarraian adieraziko dira beste puntu batzuetan izan ez diren edo landu ez diren GKUTren alderdi nabarmenak:

FUNDAZIOAREN ADMINISTRAZIO EGITURA

Eskumenak

Patronatua

- a) Urteko kontuak onartzea.
- b) Jarduketa plana onartzea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Fundazioa fusionatu, bereizi, transformatu, deuseztatu eta likidatzea.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko ekintzak, salbu eta ekintza horiek helburuei zuzenean lotuta daudenean.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetan partaidetzako edo partaidetza salmenten ekintzak egitea, baldin era bere zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20tik gorakoa bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak eskuratzeko edozein ekintza egitea.
- h) Zuzkidura handitu edo murriztea.
- i) Aktibo eta pasibo guztiak edo batzuk fusionatu, bereizi edo lagatzea.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk deuseztatzeako ekintzak.
- k) Patronatuko kideak autokontratatzeko, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta antzeko kasuetarako babesletzak aurrez baimendu badu.
- l) Erantzukizunpeko deklarazioak onartzea eta formalizatzea.

Inbertsioen batzordea

Inbertsio batzordearen funtzioak eta funtzionamendu araubidea bere barne erregelamenduan ezarriko dira, eta hori Patronatuak onartu beharko du.

Auditoria batzordea

Auditoria batzordearen funtzioak eta funtzionamendu araubidea bere barne erregelamenduan ezarriko dira, eta hori Patronatuak onartu beharko du. Nolanahi ere, Auditoria batzordeak banku fundazioa kontrolatzeko eta gainbegiratzeko funtzioak gauzatu ditu, baita kontu auditorien arloan fundazioei aplikatu dakiekeen arauditik eratorritzen diren funtzioak ere.



Patronatuaren funtzionamendu arauak

<i>Patronatua eratzea</i>	Patronatua, presidenteak deituta, behar den aldi guztietan bilduko da fundazioak ondo funtziona dezan eta, gutxienez, hiru hilean behin. Halaber, beste bilera batzuk deitu ahal izango dira, betiere presidenteak egokitzat jotzen badu edo presidenteari hori eskatzen dionean Patronatuko kideen heren batek. Ez da beharrezkoa izango aurrez deialdia egitea patrono guztiak presente daudenean eta aho batez erabakitzen dutenean bilera egitea. Bilerak hainbat aretotan egin daitezke, aldi berean, baldin eta ziurtatzen bada ikus-entzunezko edo telefono bidezko baliabideen bidez beren artean denbora errealean komunikatuko direla eta, beraz, ekintzak batasuna izango duela. Kasu honetan, deialdian jasoko da konexio sistema eta, halakorik bada, bileran izateko eta parte hartzeko baliabide teknikoak dauden lekuak. Erabakiak presidentea dagoen tokian hartuko dira.
<i>Bertaratze quoruma</i>	Patronatuak bere eskumenerako gaiei buruz erabaki ahal izango du, betiere bilera irekitzean bertan badago kideen edo ordezkarien gehiengoak. Patronatua baliozkoa izango da, kideen erdia gehi bat daudenean.
<i>Gai zerrenda ezartzea</i>	Bileretan ezingo dira landu deitutako gaiez bestelako gaiak. Halere, bertaratutako patronoek aho batez adostuz gero, ez da muga hau ezarriko.
<i>Erabakiak hartzeko araubidea</i>	Erabakiak baliozko eran emandako botoen gehiengo bidez hartuko dira; hala, horretarako zenbatzeko modukoak izango dira bertaratutako eta ordezkaturako kideen botoak. Erabakiak gehiengo bidez onartu direla ulertuko da aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnean. Halere, gehiengo hori ezingo da aplikatu Estatutuetan edo Legean bestelako gehiengo bat ezartzen denean, edo KUTXABANK SAN inbertsio edo desinbertsio akordio bat egiten denean; kasu horretan, kideen bi herenen bidez erabakiko da. Berdinketa gertatzen denean, presidentearen botoa erabakigarria izango da.
<i>Patronoei eman beharreko informazioa</i>	Bileran eztabaidatuko den guztia.
<i>Patronoek informaziorako sarbidea izateko sistemak</i>	Patronatuaren bilerei buruzko informazio guztia bertako kideei bidaltzen zaie posta elektronikoaren bidez aurrez.

Patronatuko bileren maiztasun eta deialdiei buruzko arauak

<i>Maiztasuna</i>	Behar den aldi guztietan bilduko da fundazioak ondo funtziona dezan eta, gutxienez, hiru hilean behin.
<i>Deialdia</i>	Bileren deialdia 48 ordu lehenago egingo da, gutxienez, kide bakoitzari idatzizko jakinarazpena bidalita, jakinarazpena jaso dela ziurtatzen duen edozein baliabide edo prozeduraren bidez, telematikoak barne. Deialdian bilera egiteko lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai zerrenda ere, eta dagokion dokumentazioa ere bidaliko da. Urgentziarako kasuetan, presidentearen ustez, baliozkoa izango da modua eta epea edozein izanda ere, betiere behar bezala egiaztatzen bada. Deialdiaren eta patronoen edozein jakinarazpenen ondorioetarako, kontuan hartuko da patronoak banku fundazioari jakinarazten dion helbide elektronikoa, eta edozein aldaketa banku fundazioari jakinarazi beharko zaio.
<i>Bileren deialdia eskatzeko patronoek dute eskubidea</i>	Patronatuak bilera egingo du patronoen heren batek presidenteari bilera egitea eskatzen dionean.



Inbertsioen Batzordearen funtzionamendu arauak

Organoa eratzea	Batzordearen presidentearen mende.
Bertaratze quoruma	Kideen bi herenak bertaratu behar du.
Gai zerrenda ezartzea	Batzordeko presidenteak ezarriko du deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilaren bidez. Berdinketa gertatzen denean, presidentearen botoa erabakigarria izango da.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informaziorako sarbidea izateko sistemak	Batzordearen bilerei buruzko informazio guztia bertako kideei posta elektroniko bidez bidaliko zaie bilera baino lehen, eta ondoren aktaren zirriborroa bidaliko zaie ezagutu eta onar dezaten, halakorik bada, batzordearen hurrengo bileran.

Auditoria Batzordearen funtzionamendu arauak

Organoa eratzea	Batzordearen presidentearen mende.
Bertaratze quoruma	Kideen bi herenak bertaratu behar du.
Gai zerrenda ezartzea	Batzordeko presidenteak ezarriko du deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilaren bidez. Berdinketa gertatzen denean, presidentearen botoa erabakigarria izango da.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informaziorako sarbidea izateko sistemak	Batzordearen bilerei buruzko informazio guztia bertako kideei posta elektroniko bidez bidaliko zaie bilera baino lehen, eta ondoren aktaren zirriborroa bidaliko zaie ezagutu eta onar dezaten, halakorik bada, batzordearen hurrengo bileran.



INBERTSIO POLITIKA KREDITU ERAKUNDE PARTAIDETUAN

<i>Kudeaketa helburuak eta irizpideak</i>	2017an zehar banku fundazioak % 11ko bere partaidetza kuota mantendu du kreditu erakunde partaidetuan (Kutxabank). Hori da bere inbertsio nagusia, bermatzeko, dibidenduen kobrantzaren bidez, gizarte ekintza mantentzen dela era iraunkor eta jasangarrian. Ez da bestelako inbertsio esanguratsurik proiektatu.
<i>Eraitzen banaketa</i>	Banku fundazioak Kutxabanken Administrazio Kontseiluaren proposamenaren alde botatu du, hau da, bankuaren etekin kontsolidatuaren % 50 banku fundazio akziodunei banatzeko proposamenaren alde. Banku fundazioak bankuaren etekin kontsolidatuaren % 50 banku fundazio akziodunei banatzeko proposamenaren alde botatu du. Banku fundazioak Kutxabanketik jasotako dibidenduaren zati handiena bere Gizarte Ekintzara bideratu du, baita borondatezko bi erreserba funts hornitzera ere.
<i>Akziodunen akordioak</i>	Ez dago.
<i>Akordioak hirugarrenekin</i>	Ez dago.

ERAGIKETA LOTUAK

<i>Eragiketak onartzea alderdi lotuekin</i>	Banku fundazioak hauekin guztiekin egindako eragiketa esanguratsuen xehetasunak: a) Fundazioaren, bizikideen edo hurbileko senideen patronoak. b) 26/2913 Legean, abenduaren 27koan, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzkoaren 39.3. artikuluan aipatzen diren taldeak, baldin eta patronatuan ordezkaritza badute. c) Patronatuaren batzorde delegatu eta organo delegatuen kideak. d) Banku fundazioaren edozein zuzendaritza edo administrazio organoren zuzendari nagusia, idazkari nagusia, titularrak eta zuzendaritzako langileak. e) Kreditu erakunde partaidetua edo administrazio kontseiluaren kideak. f) Banku fundazioaren taldeko erakundeak edo sozietateak edo administrazio, zuzendaritzako kideak, edo horietako patronoak. g) Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez bestelako erakundeak edo sozietateak, baldin eta fundazioak partaidetza duen banku fundazioaren taldekoak badira edo horietan administrazio, zuzendaritza edo patronatu organoetako kideak. h) Lotura duten beste alderdi batzuk.
---	---